

gurea!

GATAZKAK ERA BAKETSUAN KONPONTZEA

Hezitzaileentzako
baliabide eta esperientzia
praktikoen gidaliburua



Proiektua eta edizioa



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala
III. Gazte Plana - Gazteria Atala

Lanketa



Asociación MATIZ Elkartea
info@asociacionmatiz.org

Koordinazioa

Sara Maza Bustamante
Sara García Urieta

Kolaboratzaile jakitunak

Ramón Alzate Sáez de Heredia
Mari Luz Sánchez García-Arista
Jesús Prieto Mendaza

Talde teknikoa

Francisca Lozano Espina
Laura González Blanco
M^a Belén Valbuena Gómez
Silvia Villar Sáez de Santa María
Luis Javier Vidán Peña

Diseinua eta maketazioa

Jone Zugazaga Maortua

Argitalpena

2015eko uztaila





1

7

34

61

63

A. HITZAURREA 1

B. XEHETASUN TEORIKO BATZUK 7

- > 1. GATAZKA: GARAPEN INTEGRALERAKO TRESNA BAT 8
- > 2. GATAZKAREN ZIKLOA 10
- > 3. GATAZKEN SUSTRAIAK ETA TIPOLOGIAK 13
- > 4. GATAZKAREN ERAGILEAK 15
- > 5. ERANTZUNAREKIKO ARDURA (ERANTZUKIZUNA) 17
- > 6. EMOZIOEK GATAZKAN DUTEN FUNTZIOA 18
- > 7. GATAZKEI AURRE EGITEKO ERANTZUN-MOTAK ETA ESTILOAK 20
- > 8. GATAZKEI AURRE EGITEKO METODOAK 22
- > 9. GATAZKA-BITARTEKARITZA 25
- > 10. GATAZKAREKIKO ERANTZUNAK, HEZITZAILEEN IKUSPUNTUTIK 28
- > 11. GATAZKAREN-KOMUNITATE-IKUSPEGIA 31

D. LANABESEN ONTZIA 34

- > 1. XEHETASUN METODOLOGIKO BATZUK 35
- > 2. ESPERIENTZIEN FITXAK 44
- > 3. BALIABIDE PRAKTIKOAK 59

E. AZKEN GOGOETAK 61

F. BIBLIOGRAFIA 63





HITZAURREA



ONGI ETORRI!

HITZAURREA

Hezkuntzak eragin bizia du Bakearen kulturen eta gatazkak era positiboan kudeatzeko prozesuetan, gizartearen bakezko bilakaera errazten duelako. Eragin hori ikusita, beharrezkoa da elkarbizitzari buruzko eskuliburuak argitara ematea, eskolan eta eskolatik kanpo lan egiteko. Hala eskolan, hau da, helduaroan arduraz bizitzen ikasteko eta esperimentatzeko gunean, nola gure gazteek gizarteratzeko dituzten bestelako gune komunean, elkarbizitzarako hezkuntza da gizartearen eraldaketa egituratzen duen ardatza.

Gaur egun, krisialdi hitza etengabe agertzen da hedabideetan eta gure eguneroko solasetan, eta badirudi krisialdi ekonomikoa dela dagoen krisi bakarra, ardura diguna. Hain zuzen, horregatik, hezkuntza formal eta ez-formaleko profesionalei zuzendutako lan-dokumentu hau prestatzeko beharra eta konpromisoa ditugu, jarrera baikor eta itxaropentsu batez. Gure lehen helburua krisiaren kontzeptua berreskuratzea izango da: pertzepzio ona, eztabaida eta hausnarketa egiteko aukera gisa duen balioa gozatea, sormenerako pizgarri, eta aldatzeko, hazteko eta hezteko aukera sortzeko bultzada moduan, hezkuntzatik eta hezkuntzak eskaintzen dizkigun aukera ugarietatik helduta. Geure nortasun bakezaletik eta gatazkaz dugun pertzepzio baikorretik abiatuta, krisialdia da hezkuntza arautuak eta arautugabeak duen aukerarik onena aniztasunean hazten irakasteko, eta giro heterogeneotan komunikazioa eta erabakiak hartzea errazteko, hitza eta elkarbizketa erabiliz, behar diren akordioak egiteko eta etorkizuneko gizartea diseinatzeko.



Berrikuntzaren eta berritasunen garaian bizi gara: komunikazioaren teknologiak, familia-eredu berriak, migrazio-mugimendu erabat berriak, mugimendu sozialen eraldaketa... Eskolak -eta, oro har, hezkuntzak- arin egokitu behar du aldaketa horietara, aldaketa horiek eragin betea baitute gure gizartean eta, beraz, gure gazteen elkarbizitzako modu guztietan eta gazteek darabiltzaten teknologia berrietan, horien erabilera eta komunikazio-molde berriekin. Eskolak behar bezala egokitu behar du zaintza partekatua duten familien administrazio- eta lege-gaietara, eta informazio-agiriak edo gutunak bikoiztu behar ditu bi gurasoen etxeetara helarazteko, ikasgelei Nazio Batuak esaten zaie lagunartean, herritartasun askotako neska-mutilak joaten direlako, etab.

Horiek horrela, gure ustez, oso garrantzizkoa da mota honetako materialak prestatzaileen irakaskuntza- eta hezkuntza-jardueraren inspirazioa diren lan-bileretara eta -mahaietara eramatea, eta, era berean, hezkuntza-komunitatea eratzen duten lagun guztiak gatazkak konpontzeko trebetasunetan prestatzea: administrazioko langileak, jangeletan, pasilloetan eta patioetan harremanetan jartzen diren pertsonak, eta familiak ere bai. Azken batean, gizarteak askoz sakonagoa den krisia ezkutatzen duen krisialdi ekonomikoa gainditzeko (ñabardura eta indar ugarikoa), tresnak eskuratu behar ditugu modu eraikitzailean komunikatzeko eta gatazkak era baketsuan kudeatzeko, elkarbizitzan oinarritutako eredu globala eta integratzailea ardatz gisa hartuta. Material hau helburu horretarako baliagarria izango ahal da!

Ramón Alzate,
Gatazken Analisisian eta Konponketan katedraduna.
Donostia-San Sebastián, 2015eko maiatza.



ZER DA **duIN!**?

Gida soil bat baino askoz gehiago da: proposamen bat, gomendio edo iradokizun bat, orientabide bat, ideien, baliabideen eta esperientzien bilduma bat... partekatzeko gonbidapen bat, gure gazteen elkarbizitza sustatzeko.

Ezagutza teorikoa eta aplikatua, partekatua eta gizarte eta hezkuntzako agenteen eskura jarria. Gure gazteek dituzten gatazkak era onuragarrian nola konpondu lantzen du, modu freskoan, lasaian, berrian eta parte-hartzean oinarrituta.

Hezkuntza-proiektu desberdin bat da “duIN”, bestelakoa, erkatua, hezkuntza-arlo desberdinetako hezitzaileen esperientzietan eta ezagutzetan oinarritua. Hezitzaile horiek egunero egiten dute berrikuntza beren lanean, eta ahaleginak egiten dituzte hezkuntzako jarduera egokiak egiteko, irakaskuntza-praktikaren eta hezitzaileen komunitate osoaren onerako. Azken batean, etengabe eraikitzen ari den tresna bat da, eta elkarrekin haztea ahalbidetuko digu, elkarbizitza bera finkatu eta eratzen den modu berean, hain zuzen ere.

NORENTZAT DA?

Edozein hezkuntza arlotan 12 eta 20 urte bitarteko gazte taldeekin lan egiten duten gizarte eta hezkuntzako eragile guztientzat.

Baina erabat bereziki, bakearen kulturaren baloreetan oinarritutako hiritargoa osatzearen garrantziaz jabetzen diren hezkuntzako profesionalentzat, betiere helburutzat hartuta egokitu ahal izatea ikaragarri konplexua den testuinguru sozialera eta gero eta errealitate askotarikoagoa, ezezagunagoa eta aldakorragoa den eta, zalantzarik gabe, izango dena.

NOLA SORTU DA?

Vitoria-Gasteizko Udalaren ekimenez, Gazteria ataleko III. Gazte Planaren baitan **“Gizartetasuna eta elkarbizitza”** izeneko esku hartzeko ildoan. Bertan elkarbizitza eta gatazken ebazpenaren inguruko prestakuntza sustatzen da, “gatazka” aukera bezala eta hazi ahal izateko tresna bezala ulertzeko ikuspegi batetik abiatuta.

ZERGATIK DA INTERESGARRIA?

Gure gazteen elkarbizitzarako hezkuntza funtsezko elementua delako euren hezkuntza-proiektuan. Elkarrekin bizitzen ikastea eta gainerakoekin batera bizitzen ikastea hezkuntzaren funtsezko helburua da, eta hezkuntza-erronka giltzarria da gizarte demokratikoagoa, zuzenagoa eta solidarioagoa, inklusiboagoa eta baketsuagoa eraikitzeko.

Hezitzaile garen heinean, nork bere burua eta bestea ulertzen alfabetatu behar ditugu ikasleak, elkarrekiko mendetasun eta harreman modu posibleak hautematean, arazoak identifikatu eta interpretatzean, arazoen zergatiak eta ondorioak analizatzean, entzuteko eta elkarriketarako ohituretan... Azken batean, euren gatazka posibleak era positibo eta aberasgarrian taxutzea bideratu ahal izateko ezagutzak, trebetasunak, jarrerak, baloreak eta formak aintzakotzat hartuta.

ZERTARAKO BALIO DU GIDA HONEK?

Gatazka norbera hazteko balio duen aukera eta tresna moduan bizitzen ikasteko.

Nola eskola esparruan, hala hezkuntza ez formaleko guneetan, gatazkei era positiboan aurre egiteko berariazko ezagutzak, esperientzia eta baliabide praktikoetara sarbidea bideratzeko.

Hainbat eratako gatazka-egoeretan hezitzaileek euren lanean gazteei kritikoak, arduratsuak, solidarioak eta baloredunak izaten lagundu ahal izateko.

NOLA EGITEN DU?

Hainbat hezkuntza espaziotan gazte eta nerabeen hezkuntzaren arduraren euren gain duten pertsonentzako inspirazioa izan nahi du "duIN"ek, hezkuntza-erronka hori lortzeko lanean engaia daitezen, euren ekimenak abian jartzeko eredu eta akuilu izan daitezkeen ideiak, aholkuak, informazioa, dinamikak eta laguntzeko esperientzia eta baliabide multzo bat modu xumean eskainiz.

Gatazkarekiko hurbiltze teoriko labur eta zaindu batekin hasten da gida hau, fenomeno bere konplexutasun osoan ulertzera hurbiltzeko helburuarekin. Hari ekin ahal izaten hasteko ezinbesteko lehenengo pausoa da.

Jarraian, gatazkak modu positiboan kudeatzeko lanarekiko hurbiltze praktikoa eskaintzen du gidak, ondorengo hauekin:

- **G**azteekin lan egiteko dinamika eta metodologia didaktikoak,
- **e**rakunde eta ikastetxeek bultzatuta, inspirazio moduan balio dezaketen hainbat jardueratako esperientzia berritzaileak eta arrakastatsuak,
- **I**nternet bitartez eskura dauden baliabide pedagogikoak, eta
- **b**este profesional batzuekin informazioa partekatu eta esperientziak trukatzeko harremana finkatzeko aukera.

ZERGATIK **duIN!** IZENA?

Gida honi “duIN” izena jartzea erabaki dugu, berezko nortasuna eta identitatea izan ditzan.

Euskarazko “duin” izenak duintasuna eta begirunea ditu hizpide; eta, irakurtzean duen fonetikarekin jotuz gero, barrutik egiteko kontzeptura hurbiltzen gaitu, barrutik sortzea, eraikitzea, egitea.

Izan ere, etsi-etsirik gaude **gai** garela errealitate berria **sortzeko** eta eraikitzeko. Gatazkak era baketsuan konpontzeko lanean jardungo dugu, pertsona bakoitzaren baitatik abiatuta, **barrutik eta begirune osoz**.



B


XEHETASUN TEORIKO BATZUK



B.1. Gatazka: garapen integralerako tresna bat

Gatazkak eguneroko bizimoduaren, bizikidetzaren eta interakzio sozialen parte dira, eta, beraz, **“naturalak”** dira eta berezkoa da giza harreman guztietan. Egia ere bada hori ez dela beti horrela ulertu. Historian joera egon da *ez-gatazkaren ideala*¹ deitu geniezaiokeenaren alde, horri eutsi diote jendarte-instituzio nagusiek; eskolak eta familiak, besteak beste. Gaur egun, ordea, halabeharrezkotzat jotzen da, eta, gainera, ikusten da ez dela *per se* negatibotzat jo behar. Gatazkek, izan, oso alderdi funtzional positiboak izan ditzakete:

- ● Geldialdiak saihesten ditu, interesa eta jakin-mina pizten ditu, aldaketa pertsonalaren eta sozialaren sustraia da, eta nortasun pertsonalak eta taldekakoak ezartzen laguntzen du.
- ● Arazoei erantzuteko modu berriak eta hobeak ikasten laguntzen du, harreman hobeak eta iraunkorragoak eraikitzen eta geure burua eta besteak hobeto ezagutzen.



Zer behar da?


Batez ere, ezagutzak eta tresna praktikoak geureganatu behar ditugu **gatazkei aurrea hartu eta era konstruktiboan aurre egiteko**, eta gai izan behar dugu gure harremanetan agertzen den tentsio-egoera bakoitzari erantzun doituak emateko. Gatazkei konponbide positiboa eman izanaren onurak igarri duenak aukera gehiago ditu geroko gatazketan irtenbide konstruktiboak erdiesteko.²

1. Domínguez, R eta García, S (2003): *Introducción a la Teoría del Conflicto en las Organizaciones*, Universidad Rey Juan Carlos de Madrid. 1. or.
2. Alzate, R. (1998): *Análisis y resolución de conflictos. Una perspectiva psicológica*, UPV-EHU, Bilbo. 16. or.

Baina, zer da gatazka deritzoguna?


Jendarte-gatazka guztietan sumatzen da elkarrengandik urruntzen diren interesak daukela, interesak benetakoak izan zein ez. Alzateren hitzetan, gizabanakoen zein estatuen artean, taldeen zein erakundeen artean, desberdintasunak gertatzen direnean, alderdiek neurri batean zera sumatzen dute gatazketan desberdintasunak eta helburuak bateraezina direla edo helburuak lortzeko erabilitako bitartekoak eta desberdintasunak bateraezina direla.

Bestalde, Jares-en³ iritziz, gatazka da pertsonak, taldeak edo jendarte-egiturak bateraezina direlako prozesu bat, eta prozesu horretan berretsi egiten dira aurrakako interesak, balioak edota asmoak, edo sumatu egiten dira (Jaresek desberdindu egiten ditu benetako gatazka eta gatazka faltsua).



Gatazken egitura nahikoa sinple da, funtsezko hiru osagaien interazioak osatzen du: pertsonak, prozesua eta arazoa. Gatazkaren iturburua horietako edozein izan daiteke, edo euren arteko edozein batuketa, eta beti ikusiko dugu liskarraren garapenean edo emaitzan.

>>> 1. irudia. Gatazkaren egitura



Bestalde, badaude beste **osagai** batzuk, **ikusgarriak** (gure ahozko hizkuntza eta ahozkoa ez dena, gure ekintzak, gure jokabideak) eta **osagai ikusiezinak**, baina garrantzizkoak, hala ere (gure pentsamenduak, sentimenduak, balioak, beharizan psikologikoak, lehentasunak, etab.).⁴

3. Jares, X.R. (2004): *Educación para la paz en tiempos difíciles*, Bilbao, Bakeaz. 30. or.

4. Sánchez Gª-Arista, M.L. (Coord.), (2013): *Gestión positiva de conflictos y mediación en contextos educativos*, Madrid, Reus. 48. or.

B. XEHETASUN TEORIKO BATZUK

Krisia gertatu eta gatazka lehertzen denean; oro har, **gatazka ebaluatzeko osagai ikusgarria erabiltzen dugu** (esaten edo egiten dugun hori) eta osagai ikusgarri horrek molde negatibo, zakar edo bortitzak hartzen ditu. Baina, gatazkak kudeatzen ikasteko eta hezteko ikuspegitik, ahalegina egin behar dugu leherketa negatibo horren azpian zer dagoen argitzeko (ikusten ez den hori, icebergaren sustraia), zer beharrian, interes, sinesmen, lehenetasun-eta diren gatazkaren iturburuak, aintzat hartzen ez direla edo mehatxupean daudela sumatzen direnak. Horretarako, arreta honetan jartzea komeni da:⁵


- ● Argitu interes-arloak eta arazo espezifikoak, **pertsonak arazoetatik bereiziz**.
- ● **Ikusi** zein diren arazoen azpian dauden oinarrizko **beharrian eta interesak**.
- ● **Identifikatu denen printzipioak eta balioak**.

Gainera, kontuan hartzea komeni da gatazkaren iturburuan zein konponbidean **ez dutela bakarrik parte hartzen pertsonak edo taldeek, baizik eta gatazkako rolek, testuinguruak, jendarte-egiturak ere** parte hartzen dutela.

B.2. Gatazkaren zikloa

Gatazka azaleratzen edo eragiten duen testuingurua gorabehera, dela komunitatea, eskola, instituzioak, familia edo beste bat, gatazkak erakutsiko du euren artean erlazionatzen diren atalek eboluzio-ziklo bat dutela, irudian ikus daitekeen bezala:

>>> 2. irudia. Gatazkaren zikloa



5. Alzate, op.cit. 48. or.

B. XEHETASUN TEORIKO BATZUK

Ikus ditzagun, orain, zehatz-mehatz zer diren eta zelan erlazionatzen diren elkarrekin:⁶

1. FASEA

jarrerak eta sinesmenak

Zikloaren abiaburua gu geu gara eta gatazkari buruz ditugun **jarrera eta sinesmenak**. Jarrera eta sinesmen horiek jatorri asko dituzte: gatazkei buruz umezaroan jasotako mezuak, gurasoen, tutoreen, irakasleen eta lagunen jokabide-ereduak, komunikabideen bidez jasotako bestelako ereduak, gatazkei lotuta gure larruan bizi izandakoa.

gure jarrera eta sinesmenek eragin edo baldintzatu egiten dute zelan erantzungo diegun gatazkei.

2. FASEA

gatazka

Hemen, gatazka gertatu egiten da; izan ere, harreman sozialek berezkoa dute gatazka, eta halabeharrezkoa da edozein harremanetan. Fenomeno bat da; beraz, nonahikoa eta unibertetsala.

3. FASEA

erantzuna

Hementxe ekiten diogu. Garrasi egin dezakegu, egoerari buruz hitz egiten aha-lerin gaitezke, edo, besterik gabe, alde batera utz dezakegu. Gure jarrera- eta sinesmen-sistema pertsonalak, sarritan, era bertsuan erantzutera bultzatzen gaitzake gatazka desberdinetan. Horrexek gauza asko esan ahal dizkigu bai geure buruaz, bai gatazka-egoerei erantzuteko ditugun moduez.

4. FASEA

emaitza

Erantzunak joera izango du emaitza berberera eramanez gaitzan. Hala, ondorioak balio izango digu sinesmena indartzeko, eta, horrenbestez, zikloak iraun egiten du. Gehienetan, zikloaren emaitzak indartu egiten du gure sinesmen-sistema, eta ereduari eusten dio.

6. Alzate, R. (2004): *Curso-taller de habilidades de resolución de conflictos en el marco escolar*, Iruñea, GEUZ - UPV / EHU. 3. or.

B. XEHETASUN TEORIKO BATZUK

Gutako bakoitzak “motxila” bat darama –metaforikoki–, eta han sartzen ditugu hezkuntza-
ren, bizipenen eta besteekiko interakzioen bidez, sinesmenak, jarrerak, ohiturak, balioak,
interesak, harremanak izateko eta komunikatzeko estiloak... Berba batean, gure kultura.
Gure kulturak zehazten du zer jokabide, oro har, jotzen diren gatazkatsutzat, eta zer por-
taera jotzen diren egoki edo ez, erantzun bat emateko orduan. Beste batekin harremanak
ditugunean, besteak ere bere “motxila” dauka, beste eduki batzuekin; beraz, naturala da
tirabirak –gatazkak– sortzea, gure desberdintasunek topo egiten dute eta. Orain arte, dena
da normala. Tirabira horiei ematen diegun erantzunaren arabera dago “jokoan” geure
burua.

Erantzunarekiko ardura (erantzukizuna) hartzen eta **egoera bakoitzari zentzuz doitzen**
ikastea da **BIZIKIDETZAREN IKASKETA**ren eduki nagusia, eta horrekin batera, gaitasun
soziala eta hiritarra; horren bidez, ikasleak ezagutza, trebetasun, balio sozial eta hiritar-
tan alfabetatzen ditugu, gai izan daitezen informazioa biltzeko, aztertzeko, arazoak iden-
tifikatzeko, informazioa eta proposamenak interpretatzeko eta balioesteko, iturburu-
en eta ondorioen arteko loturak ezartzeko, entzuteko, elkarrizketan jarduteko, konponbideak
komunikatzeko eta proposatzeko, eta ekiteko plan pertsonalak antolatzeke, bere burua-
rekiko, hurbileko jendartearekiko eta gizateria osoarekiko koherenteak eta arduratsuak.
Alajaina!

Jendetasuna hainbat mailatako abileziek osatzen dute: portaera, pentsamendua eta
emozioak, baina, gainera, etorkizuneko hiritar baketsu, laguntzaile eta solidarioak izango
diren ikasleentzako hezkuntzan garrantzizko lau abilezia sozialek ere osatzen dute: pertso-
nen arteko konponbide gogoetazkoa, negoziazioa, laguntza/lankidetzarako portaera, eta
jokabide solidarioa.⁷



7. Triana, M.V. (2001): “Educación y competencia social: un programa para el aula. Aprender a ser personas y a convivir: un programa para secundaria”, in Federación de Enseñanza de CC.OO. (2001): Los problemas de la convivencia escolar: un enfoque práctico. Política Educativa, Madrid. Federación de Enseñanza de CC.OO. 89-116. or.

B.3. Gatazken sustraiak eta tipologia

Ikusi dugunez, gatazka lotuta dago bateraezinak direla eta baliabide edo ordain gutxi dau dela sumatzearekin eta bestearen interferentziarekin. Funtsezkoa da, beraz, kontuan hartzea edozein gatazkatan pertsonak zer sumatzen duten dela garrantzi handiena duena. Gatazka, helburuak, bestearen asmoak eta arrazoiak; horiek guztiek zehaztuko dute, ia beti, borrokaren intentsitatea.⁸

Gatazkari buruzko definizio ugari daude, baita gatazken sailkapen eta tipologia desberdinak ere. Aniztasun horren atzean, besteak beste, zera dago, egile bakoitzak ikuspegi desberdinak aukeratzen dituela gatazka sailkatzeko, hainbat irizpideren arabera. Irizpideen artean dago norberak gatazka-egoeraz, gatazkaren izaeraz, garrantziaz, neurriaz eta intentsitateaz duen kontzientzia-maila, taulan ikusi dezakegunez:⁹

>>> 1. taula. Gatazka-motak

SAILKAPENA	GATAZKA-MOTAK
Gatazkaren gaineko kontzientziaren arabera	Gatazka latenteak, azaleratu berriak eta agerikoak (Moore, 1995)
Gatazkaren garrantziaren eta neurriaren arabera	Pertsona barruko gatazkak, pertsona artekoak, talde barrukoak, taldeen artekoak, nazio barrukoak, nazioartekoak eta mundu osokoak (Fisher, 1990)
Gatazkaren intentsitatearen arabera	Trata daitezkeen gatazkak (intentsitate txiki-koak) eta tratatu ezin daitezkeenak (intentsitate handikoak), Kriesberg-en arabera (Moraless, 1999)
Oro har...	Parte hartzen duten alderdien arabera, jatorrien arabera, portaera-motaren arabera, gaiaren arabera, gatazka ulertzeko moduaren arabera (Burguet Arfelis, 1999)

Gure heziketa-lanerako sailkapenik eraginkorrena gatazkaren edukiaren arabera da, beharbada. Deutsch-ek eta Thomas-ek diote:

Deutsch (1969): sailkapena egiteko, gatazkaren edukiak, gaia batez ere, hartu ditu kontuan eta kategoria hauek desberdindu ditu:

- ● Baliabideen kontrola (dirua, boterea, espazioa).
- ● Besteekin bateraezinak diren lehentasun/zaletasunak izan, elkarren kontrako interesak, nahiak edo balioak, edo, beste barik, desberdinak.
- ● Informazio edo sinesmen desberdinak.

8. Lederach, J.P. (2000): *El abecé de la paz y los conflictos. Educación para la paz*, Edupaz 10, Madril, Catarata. 57. – 58. or.
9. París, S. (2009): *Filosofía de los conflictos. Una teoría para su transformación pacífica*, Bartzelona, Icaria. 36. – 37. or.

B. XEHETASUN TEORIKO BATZUK

Thomas (1992): hauek desberdintzen ditu:

- ● **Helburu edo interesen gatazkak**

Bateraezinak edo elkarrengandik urrun dirudien emaitzak nahi dituzte alderdiek (bakoitzaren beharrianak ase, baliabide urriak lortu, etab.). Alderdi batek helburuak erdiesten baditu, beste alderdiak mehatxupean ditu bere helburuak, edo oztopoak ditu lortzeko.

- ● **Iritzien gatazkak – gatazka kognitiboak**

Gertatu denaren edo gertaera enpirikoen inguruan desberdintasunak daude. Alderdi batek sumatzen du bestearen dedukzioa desberdina dela (ez da zuzena). Eztabaida dei diezaiokegu horri.


- ● **Arau-gatazkak – balioen gatazkak**

Ardatza da batek balioetsi egiten duela dituen itzaropenen arabera bestearen jokabidea edo besteak zelan jokatu beharko lukeen. Itzaropen horiek eurekin ekar ditzakete jokabide egokiari buruzko askotariko ereduak: etikoak, zuzentasun-nozioak, justizia, estatus-hierarkia errespetatzea, eta sistema soziokulturalaren beste arau batzuk, etab.



B.4. Gatazkaren eragileak

Gatazkaren eragileak dira gatazkan parte hartzen duten pertsonak, edo taldea; unitateak izan daitezke, esaterako: pertsona bat, lagun-taldea, ikasgela batekoak, etab.¹⁰ Baina gatazkaren eszena-tokian ez daude pertsona protagonistak bakarrik, hau da, euren ekintzen bidez gatazkaren bidea eta eboluzioa zehazten dituztenak, ezpada ze beste eragile batzuk ere bai, neurri batean eragiten dutenak, baita era esanguratsuan ere batzuetan. Pentsatu, nerabe biren arteko borroka berdina izango litzateke, ikaskide-ikusleak egongo ez balira protagonista bakoitzaren indarraren eta bortizkeriaren maila “ebaluatzen”? Ikusleek ere erantzukizuna dute gertatzen ari denaz.



LAGUNTZA bilatzeak berebiziko garrantzia du gatazketan. Senez, laguntzak bilatzen ditugu indartsu eta arrazoia dugula sentitzeko, **taldekideak kolonizatzen ditugu**, eta “nire arerioaren” kontra ditudan jokabide negatiboak indartu ere egin ditzakegu. Hori da, esaterako, **bullying**-aren dinamika: **biktima** bat bilatzen dut eta erabil dezakedan talde bat bultzatzen dut, biktima jazartzeko, eraso egiteko, umiliatzeko... Botere-sentimenduak gora egiten du, eta droga bat bezala, gero eta estimulu gehiago behar du. Garrantzitsua da kontuan hartzea jazartzaileek dinamika hori erabiltzen dutela, askotan jendarte-onarpena behar dutelako, euren autokontzepzioa eta autoestimua hobetzeko.

Hala, pertsona arteko gatazka askotan, zuzenean parte hartzen dutenez gain, zeharka parte hartu arren gatazka-prozesuaren norabidea eta emaitza baldintzatu eta eragin ere egiten dutenak daude.

10. Muñoz, F.A. eta Molina, B. (2004): *Manual de paz y conflictos*, Consejería de Educación y Ciencia de la Junta de Andalucía, Universidad de Granada. 175. or.

B. XEHETASUN TEORIKO BATZUK

Bestalde, kontuan hartu behar dugu gatazkan parte hartzen dutenek balioak, interesak, beharrianak eta arazoaren gaineko ikuspegi propioak dituztela; aipatutako horiek guztiek bultzatu eta bideratu egiten dituzte euren ekintzak. Gertatutakoak zelan eragin zion, halako ikuspegia dute. Hori gogoan harturik, gatazkari buruzko eskema honi jarraituz aztertu beharko genituzke gatazka guztiak, Lederach eta Chupp-en arabera (1995):

A. Parte hartzen duten taldeak eta pertsonak identifikatu:

1. Nork hartzen du/dute parte zuzenean?
2. Nork hartzen du/dute parte zeharka, baina emaitzan interesa du/dute eta emaitzan ere eragin dezake/dezakete?
3. Zer lidergo-mota erabiltzen dute?
4. Zer eragin edo ahalmen dute besteengan?, berdinkideen arteko harremanak al dira?, zelakoak dira?
5. Parte hartzen dutenen artean koalizioak daude, edo egon litezke?, noren artean?, zergatik?

B. Arazoa ulertzeko modua:

1. Zelan ulertzen dute arazoa?, zelan deskribatzen dute arazoa?
2. Zelan eragin die?
3. Zer sentimendu nabarmentzen dira?, zer-nolako intentsitatearekin?
4. Zer irtenbide iradokitzen dituzte?, zer beharrian eta interes dituzte?
5. Zelan planteia daiteke berriro arazoa, ulerberak izan daitezen?

Egileek azpimarratu dutenez, eragile berriek eta baldintza berriek beste testuinguru bat sortzen dute eta aldatu egiten dute gatazkan dauden alderdien arteko harreman-egitura.

B.5. Erantzunarekiko ardura (erantzukizuna)

Gatazka emaitza positibora bideratzen dugu, edo negatibora, besteekiko tirabirei ematen diegun erantzuna aukeratzen dugunean. Horrexegatik du garrantzia kasu bakoitzari ematen diegun erantzunak.

Bestea “errudun” ikusi barik, nire gatazken gainera dudan erantzukizunaz kontzientzia hartzen dudanean, jarrera ireki eta sortzailearekin neure buruak erantzun posibleak, erantzun doiagoak bilatzen ditu, eta horrek erraztuko du gatazkaren bide konstruktiboa abian jar-tzen, eta krisia, bere karga suntsitzaile osoarekin, lehertzea saihesten.

Laburbilduta, erantzukizunak eskatzen du **bestea errudun ikustetik “Zer egin dezakedan?” pentsatzera**. Aldaketa horrek heziketa-ahalmen handia du.

Irudikatu zer eragin duen hau galdetzeak gatazkan parte hartzen duen alderdi bakoitzean:



Entrenamendu horrek harremanak hobetzen ditu banakakoen zein taldekoen gatazketan, eta, beraz, bizikidetza ere bai.

B.6. Emozioek gatazkan duten funtzioa



“EZ ahaztu sentimenduak
ekintzara zuzenduta daudela.
Lagungarri zaizkigu egoera suntsitzaileak saihesteko
edo onuragarriak aurkitzeko”.

J.A. Marina

Gatazkek eragiten dituzten emozioak sarri oztopo larria izan daitezke konponbide positiboa errazteko. Emozioek, era berean, gatazkak eragin ditzakete. Izan ere, etengabea da emozioen eta gatazken arteko interakzioa.

Etengabeko beste interakzio bat ere badago emozioen, pentsamenduen eta ekintzen artean. Emozioek eragiten die pentsatzen dugun horri eta egiten dugun horri. Pentsamenduek ere eragiten diete emozioak eta ekintzak esperimendatzeko moduei. Eta, azkenik, ekintzek pentsamenduari eta emozioari eragiten diete. Interakzio hori guztia gogoan hartu beharko da emozioak erregulatzeko edozein proposamenetan.

Hezitzaileak garen neurrian, kontziente izan behar dugu gatazkak konpontzeko ikasketa guztiek lagun izan behar dutela ikasketa emozionala, ikasleei laguntzeko euren emozioek zelan funtzionatzen duten jakin dezaten –zelan eragiten dien, zelan egiten duten eta zelan erantzuten dieten emozioei–, eta beste pertsonengan zer funtzionamendu den ohikoena ere bai. Laburbilduz, emozioak, eta emozioen iturburuak eta ondorioak detektatzeko tresnak emango dizkien ikasketa bat.

Taula honek erakusten du gatazketan azaleratzen diren pentsamenduen eta emozio nagusi batzuen¹¹ arteko erlazioa. Gure heziketa-lanean kontuan hartzeko modukoak izan daitezke.

11. Redorta, J., Obiols, M., eta Bisquerra, R. (2006): *Emoción y conflicto. Aprende a manejar las emociones*, Bartzelona, Paidós. 26.-28. or.

B. XEHETASUN TEORIKO BATZUK

>>> 2. taula. Emozioen eta emozioek sortzen dituzten pentsamenduen arteko lotura


Hira	Pentsatzen dut norbaitek bidegabe tratatu nauela. Norbaitek niganetik probetxua ateratzen du; abusatu egiten nau. Minduta, irainduta, txarto tratatua... sentitzen naiz.
Beldurra	Nire aurrean arrisku bat dut, benetakoa eta hurbil-hurbil, egiazkoa nire bizitzarako, maite ditudan bizitzarako edo neure interesetarako.
Antsietatea	Pentsatzen dut arriskuan egon naitekeela zer edo zer gertatzeko aukera gutxi duen zerbaitekin. Pentsatzen dut «zer baldin eta...?».
Tristezia	Galtzeari lotutako pentsamenduak: norbaitek sentimentera arbuia egitea; maite dugun norbait hiltzea, gure lanpostua galtzea, etab.
Lotsa	Uste izatea ez dudala egin nik egin dezadan beste batek itxaroten duen hori. Norbera barregarri geratu dela uste izatea. Akats bat egitea, «hanka sartzea», norbait mintzea. Nor bere eskakizun moralaren mailan ez egotea.
Errua	Neure burua kondenatzen du egin dudanagatik (akatsa, huts egitea, barregarri geratzea, mina, etab.). Errua bada, neure burua kondenatzen dut; lotsa bada, besteek kondenatzen nautela uste dut.
Frustrazioa	Pentsatzen dut gertaerak ez dituztela nire itxaropenak betetzen. Ez dut nahi dudana hori lortu.
Dezepzioa	Pentsatzen dut baten batek ez duela egin nik itxaron izan dudana hori. Beste pertsona batek ez du erdietsi, berak lortzea nik itxaron izan dudana hori.
Gutxiagotasuna	Besteekin neure burua alderatu eta uste dut besteak hobekiago direla.
Etsipena	Neure buruari diotsot nire arazoak ez direla inoiz konponduko. Gauzak ez dutela hobera egingo, ezpada ze txarrerara. Etsipena zabaltzen da.

Emozioak garrantzitsuak dira ekiteko jarrera izaten ere laguntzen digulako. Emozio bakoitzak balizko erantzun-sorta zabaltzen du. Beraz, adibidez, beldur bagara, ihes egin dezakegu, edo ezkutatu; hirak, berriz, erasorako jartzen gaitu; tristeziak bakardadera eramaten gaitu edo negar egiteko gogoia eragiten digu, etab.

Engileen arabera, gatazkei lotuta sortzen diren sentimenduak honela sailka ditzakegu: “negatiboak”, “pasiboak” eta “positiboak”. Negatiboak dira bortizkeria pizten laguntzen dutenak; pasiboak, berriz, axolagabetasuna edo axolagabekeria sortzen dutenak, eta positiboak, arazoak era positiboan eraldatzeko bitarteko egokiak direnak.

B.7. Gatazkei aurre egiteko erantzun-motak eta estiloak

Inoiz galdetu al diogu geure buruari zer erantzun ematen diegun gure bizitzan sortzen diren gatazkei? Gure esperientziatik eta ematen diegun erantzunetatik abiatuta, zer zeregin dugu lan egiten dugun taldeetan, hezitzaileak garen neurrian?, gure jokabidea taldeetara helarazten dugu?



“Bakea lortzeko
era positiboan
arautu behar dira
gatazkek”

Bruce D. Bonta



Garrantzitsua da garbi izatea **gatazkari ematen zaion erantzuna ko-eraiki**¹² egiten dela interakzioan dauden pertsona biren edo gehiagoren artean, gatazkan parte hartzen duten guztien artean. Pertsona horien artean eratzen den harremana, hain zuzen, giltzarria da, nahiz eta ematen duen erantzunarekiko bakoitzak bere erantzukizuna daukan; harreman horixe hartu behar da gogoan, egoki “ko-eraikitzen” jarraitzeko, hau da, tirabirak bideratzeko topo egin dezaten, elkar uler diezaioten, adostasunera hel daitezen.

Abilezia hori geureganatzeko, interesgarria da **gatazkari aurre egiteko estiloak ezagutzea**, nork bere estiloaz kontzientzia hartzeko eta besteena ere ezagutzeko, kudeaketa hobe izan dadin, taldeekin lan egiten dugunean, batez ere. Cascón-en arabera,¹³ tirabira ulertzerakoan, bost jarrera nagusi daude. Taulan batu ditugu:

3. taula. Gatazkekiko jarrerak

LEHIA (nik irabazi/zuk galdu)	Irabazten ahalegintzen naiz, bestearen gainean jartzen.
EGOKITU (nik galdu/zuk irabazi)	Amore ematen dut, nire interesak kontuan hartu barik.
SAIHESTU (nik galdu/zuk galdu)	Nirekin zerikusirik ez balu bezala jokutzen dut.
LAGUNDU/LANKIDETZA (nik irabazi/zuk irabazi)	Irtenbideak bilatzen ditut, parte hartzen duten alderdiak asetzeko modukoak.
KONPROMISOA/NEGOZIAZIOA	Erabateko lankidetzazaila denean, irtenbideak bila daitezke alderdi guztiek funtsean irabaz dezaten.

12. Sánchez G^a-Arista, M.L. (koord.)(2013): *Gestión positiva de conflictos y mediación en contextos educativos*, Madrid, Reus. 51. or.

13. Cascón, F. (2001): *Educación en y para el conflicto*. Cátedra Unesco sobre Paz y Derechos Humanos, Universidad Autónoma de Barcelona. 10. – 11. or.


B. XEHETASUN TEORIKO BATZUK

LAGUNTZA/LANKIDETZA eredura bideratu behar dugu heziketa-prozesua, gatazkan parte hartzen duten alderdi guztiek irabazi egiten dutelako prozesu horretan.

Aurre egiteko estilo nahasgaberik ez badago ere, joera primarioak egon badaude, eta hezkuntzari eta ikasitako ereduari duten lotura handia da, batez ere, familian eta umezaroan, ikusi dugunez.

Gure taldeetako gazteek gatazkan aurrean duten hasierako erantzun-estiloetatik abiatuta, ikusiko dugu zer entrenamendu egin beharko dugun euren erantzuna konpromisora bidera dadin, adibidez:


- ● **LEHIA** estiloa hobetuko du, **ENPATIA** entrenatuz gero: beste pertsonaren larruan jartzeko gai izan dadin.
- ● **SAIHESTU ETA EGOKITU** estiloa hobetuko du, **ASERTIBITATEA** entrenatuz gero, hau da, modu positiboekin euren interesak defendatuz.
- ● **LAGUNTZEKO** estiloa duenak ere **ASERTIBITATEA** entrenatu behar du, bitxia bada ere; besteari atsegin egiteko beharra sentitzen badu, batez ere.



B.8. Gatazkei aurre egiteko metodoak

Baina, zelan hezi behar ditugu gazteak, gatazkari era positiboan aurre egin diezaioten?, zelan lagundu diezaiekegu era arduratsu, konstruktibo eta lankidetzan erantzun dezaten parte diren taldeen barruan? Gatazkak modu positiboan eta baketsuan konpontzeko, ez dugu nabarmendu behar bakarrik kontzeptu-ikasketa, ezpada ze jarrerak, balioak eta arauak. Horretarako, ikuspegi sozioafektiboa da bakearen aldeko hezkuntzak eskaintzen digun metodologia, eta abiapuntu egokia izan daiteke.

IKUSPUNTU SOZIOAFEKTIBOAn zuzenean esperimentatuz ikasten da, lantzen ari garen egoera norberak bizi du, sakonean egoera ulertu eta egoerak pizten dizkigun sentimenduekin bat egiteko, horrela, jarrerak, balioak eta jokabideak errazago aldatzen dira.



Farré-ren arabera,¹⁴ ikasleei klase magistrala eman diezaiekegu ikuspuntu teorikotik, baina ez dute eureganatuko transmititu gura diegun hori, edukia abstraktua delako, euren bizi-penetik urrun dagoelako, eta harekin bat egitea zail egiten zaielako. Ikuspuntu sozioafektiboa erabiltzea planteatzen dugunean, nahi dugu gure gazteek “euren larruan” bizi ditzaten lantzen ari garen egoerak; esaterako, rol-jolas baten bidez, parte-hartzaile bakoitzak bere iritzia eratzerik izan dezan, eta taldekideei bere esperientziaren berri emateko gai izan dadin. Esperientzia-metaketa horrek taldean espiritu kritikoa eta sakona sortzen lagunduko du, landu den gaiaren inguruan; nahi dena da eraldaketa pertsonal positiboak gerta daitezela, aurretik gaia zelan ulertu duten kontuan hartuta.

Bakearen aldeko hezkuntzatik abiatuta, gatazkan hezteko, Cascónek gatazka lantzea proposatu du, batez ere ondoz ondoko hiru mailatan: probentzioa,¹⁵ azterketa eta negoziazioa, eta bitartekaritza.¹⁶ Ikus ditzagun labur eta banan-banan:

14. Farré Salvá, S. (2004): *Gestión de conflictos: taller de mediación. Un enfoque socioafectivo*, Bartzelona, Ariel. 18-20. or.

15. Terminologia hori j. Burton-ek sortu zuen, lankidetzazko harremanak sustatzearen alde egiten du egileak, gatazkak agertzen direnean konponbidea bortitza gertatzeko aukerak murriztuz ditzaten; gatazkan prebentzioa ez bezala, hau da, gatazka saihesteko lan egitea.

16. Cascón, F. (2001): *Educación en y para el conflicto*. Cátedra UNESCO sobre Paz y Derechos Humanos, Universidad Autónoma de Barcelona. 13. or.

PROBENTZIOA

Tradizioz “gatazkak saihestu” behar direla azpimarratu da, lehertu baino lehen ekiteko; gatazka zerbait txarra balitz bezala, saihesteko zerbait. Hala ere, ikusi dugunez, hori ez da posible, gatazkekin bizitzen ikasi behar dugu. Probentzioaren bidez, abileziak eta estrategiak garatuko ditugu, eta gatazkei aurre egiten lagunduko digute. Arellano-ren arabera,¹⁶ probentzioa lotuta dago aldaketetara egokitzea, autonomia, lankidetzaren-espirtua eta balio-aniztasuna gazteengan sustatzearekin, etengabe garatzen ari den pentsamendu dialektiko batekin, aniztasuna zer den ulertzerik izan dezaten. Horrela, jendarte plural eta demokratikoaren oinarriak eraikiko dira, eta

bertan bakea, askatasuna eta besteekiko begirunea barneratuta egongo dira bizi-modu gisa.

Hezkuntzaren ikuspegitik, probentzioa txikitatik landu behar da, teknika eta jolasen bidez konfiantzazko espazioak sortu behar dira, txikiei lagundu diezaieten euren buruan eta besteengan konfiantza handiago izaten, komunikazio eraginkorraren eta entzute aktiboaren abileziak garatuz, eta ikasteko lankidetzazko harremanak eta espazioak ezarritik.

AZTERKETA ETA NEGOZIAZIOA

horrek ikasten erraztuko digu gatazkak aztertzen eta haietan esku hartzen, eta gatazka guztietan dauden funtsezko hiru osagaiak desberdintzen: parte hartzen du-

ten pertsonak, prozesua eta arazoa/k (interes edo beharrian kontrajarriak).

>>> Gatazkaren eskema laburra

Pertsonak

- > Nork hartzen du parte gatazkan?, eta zelan?
- > Zer oinarri ditu, boterea edota eragina izateko?
- > Zelan ulertzen dute gatazka, eta zelan eragiten die gatazkak?

Prozesua

- > Orain arteko prozesua aztertu: zerk piztu du gatazka, zer faktore gehitu dira gatazka areagotuz, zer bitartekotza-baretzaile egon dira, zer irtenbide probatu dira eta zer emaitza lortu dituzte?
- > Zelan ari da garatzen komunikazioa? Desitxuraketak: estereotipoak, zurrumurruak, informazio okerra edo faltsua...

Arazoa

- > “Muina, mamia” deskribatu: alderdi bakoitzak duen jarrerari eusteko zer interes eta beharrian daude? Giza beharrian oinarritutako kontuan hartu beharko dira ase daitezkeen. Balio desberdinak.
- > Dauden baliabide erabilgarriak aztertu: konstruktiboak izan daitezkeen pertsonak, denen beharriak, edo gutxienez baztertzailak ez direnak, egin nahi diren eskaintzak.

Cascón-enetik hartuta, 2001

17. Arellano, N. (2007): “La violencia escolar y la prevención del conflicto”. Revista ORBIS, 3. urtea, 7. zk., 31.-32. or.

B. XEHETASUN TEORIKO BATZUK

Bestearen larruan jartzea, jarrerak edo iritziak desberdintzea, alderdien beharrianak detektatzea, beharrian horiek hierarkian jartzeko gai izatea, konponbide bakarra ez dagoela ulertzea; horiek guztiek malgutasuna eta sormena garatzen laguntzen dute, norberak irtenbide berrietara irekitzerik izan dezan. Horrela, euren gatazkak gazteek eurek konpontzen ikasten dute.

Negoiazioak berak dakar gatazkan dauden alderdiak tratuan ibiltzeko prozesua martxan jartzea. Parte-hartzaileek borondatez batzen dira euren beharrianak edo

interesak elkarri esateko, bai proposamenak, bai alderdi guztientzat asetzeko modukoak diren balizko irtenbideak trukatzeko, baita gorabeherak konpontzeko ere, esaterako, etorkizunean euren harremanek zer izaera izango duten, edo etorkizuneko gatazkak konpontzeko zer prozedura erabiliko dituzten.

Ikasleen arteko gatazkak konpontzeko metodo horri laguntzeko tresna batzuk dira: irudikatze-teknikak, gatazka-mapak, elkarriketari eta eztabaidari begirako teknikak eta ideiak.

BITARTEKARITZA

Tresna alternatiboa da gatazkak konpontzeko prozesu klasikoaren barruan, gatazkan parte hartzen duten pertsonak eurek gatazka konpontzeko aukera guztiak erabili eta gero. Orduan, hirugarren pertsona batengana jo daiteke, esku hartu eta lagundu dezan gatazka konpontzeko komunikazioa berriz ezartzen eta giro eta espazio egokiak sortzen.

Pertsona neutral hori bitartekaria da eta prozesuan laguntzeko, besterik ez, hartzen du parte; ez du inoiz erabakirik hartzen; izan ere, alderdiak eurak dira azken akordioa lortu behar dutenak. Beraz, negoziazioan bezala, bitartekaritzan ere, gatazkan dauden alderdiek hartuko dituzte erabakiak.¹⁸


18. Bitartekaritza ez da gatazkak konpontzeko hirugarren batengana jotzen den metodo bakarra, baina bada hezkuntzan gehien erabiltzen den tresna; arbitrajea, ordea, gatazkan dauden alderdiek onartu egiten dute kanpoko, hirugarren edo arbitro batek hartuko duen erabakia.

B.9. Gatazka-bitartekaritza

Egiaz, oso haserretuta gaudenean, gure garuna “borrokazale” dagoenean, dagoeneko arrazoitzen ez dugunean, egoki komunikatzen ez dugunean, bestearekiko gatazka gogortzen denean edo goraka doanean;¹⁹ bai, oraindik ere, badugu aukera bat era positiboan konpontzeko: **bitartekaritza**.

Hirugarren batek, neutralak, bitartekariak lagundu egiten die gatazkan dauden “alderdiei” arrazoizko komunikazioa berreskuratzen, euren akordioetara heltzerik izan dezaten. Horrela, pertsonen euren gatazken gaineko erantzukizuna eta protagonismoa itzultzen zaizkie.

Bitartekaritza-**prozesua borondatezkoa eta konfidentziala** da. Bitartekariak prozesua eta fase bakoitza kontrolatzen ditu, helburua da gatazka positibo bihurtzea; batez ere, komunikazio-tekniken bidez, alderdiei lagunduz euren jarreretatik mugitzen, interesak identifikatzen, aurka egiteko jarrera baztertu eta lankidetzajarrera hartzen. Bitartekaritzak pertsonak eta bizikidetzagi-roa eraldatzeko ahalmen handia dauka, autoestimua indartzen du eta elkarriketak izaten ikastea dakar: “hitz eginez pertsonen elkar ulertzen dute”, badago alderdiak beste egoera eta giroetara eramaterik.



Autoestimua,
komunikazio-etika egokia
eta elkarriketarako
gaitasuna, lankidetzajarrera, enpatia eta
ulertze kritikoa. Ahalak horiek izan
behar dute bitartekariaren
jardueraren ardatz eragileak.

19. Gatazka zailtzen eta areagotzen denean, “eskada” bat dago. Gorakadaren oinarrian “akzio-erreakzio” mekanismo bat dago: eten barik intentsitatea areagotzen da, hau da, mehatxu txiki bati mehatxu apur bat handiago batekin erantzuten zaio, eta horrela eten barik, muturreko liskarrera iritsi arte.

B. XEHETASUN TEORIKO BATZUK

Hezkuntzari dagokionez, bitartekaritzan bi prozedura edo formula oinarritzko daude: bata, bitartekaritza zelan egiten den, eta bestea, nor diren bitartekariak. Bitartekaritzan zelan egiten den kontuan hartuta, bat-bateko bitartekaritza izango dugu, informala, edo bitartekaritza instituzionalizatua edo bitartekari-taldeena. Nork egiten duen kontuan hartzen badugu, berdinkideen arteko bitartekaritza edo nagusien bitartekaritza da:²⁰

>>> 4. taula. Hezkuntza-arloan dauden bitartekaritza-motak

Bitartekaritza zelan egiten den	
Bat-bateko bitartekaritza, edo informala	Taldeek prestakuntza duten neurrian eta gatazkak kudeatzeko abilezia nahikoak dituzten neurrian, ez direla konpontzeko gai sentitzen dute, eta era adostuan hirugarren batek lagundu diezaien eskatzen dute.
Bitartekaritza instituzionalizatua, edo bitartekari-taldeak	Berariaz prestatutako bitartekari-taldeak dira, euren kokapena denek ezagutzen dute. Irakasleek, ikasleek eta familiak ere ordezkaturik daude taldean.
Bitartekaritza nork egiten duen	
Berdinkideen arteko bitartekaritza	Ikaskideen edo berdinkideen arteko gatazketan, bitartekari-lana egiten du ikasle batek, edo egiten dute ikasleek. Hasieran korapilatsuagoa bada ere, gerora handiagoa da balio pedagogikoa.
Nagusien bitartekaritza	Hezitzaileek gatazketan bitartekari-lana egin eta erantzukizuna euren gain hartzen dute.

Bat-bateko bitartekaritza eta instituzionalizatua independenteak badira ere, elkarren osagarri izan daitezke. Bestalde, bitartekaritza-motaren ezaugarriak kontuan hartuta, hezkuntzako arlo formalean zein informalean, errazagoa jarriko dira martxan berdinkideen bitartekaritza eta nagusien bitartekaritza.

Bitartekaritza-prozesu guztietan, funtsezkoa da bitartekariaren funtzioa, komunikazio konstruktiboa errazten lagundu behar du eta. Bere funtzioa bereziki garrantzizkoa da honetarako:²¹

- 1) Konfrontaziorako joera ordeztu lankidetzako-joera batekin, alderdiek gatazka konpontzeko lotu diezaioten denek irabaztea erdiesteko ("neuk irabazi, zeuk irabazi"), elkarri kalte egiten ibili barik.
- 2) Bestearen helburuekin bateragarriak izateko helburu propioak identifikatzen eta konponbideak bilatzen lagundu.
- 3) Alderdi bakoitzari ulertzen lagundu besteak interes legítimoak dituela, eta era berean lagundu denentzako onak diren irtenbideekiko konpromisoa hartzen.

20. Cascón, *op.cit.* 29. or.

21. Díaz-Aguado, M.J. (2002): *Convivencia escolar y prevención de la violencia*.
Página web del Centro Nacional de Información y Comunicación Educativa. 131. or.

B. XEHETASUN TEORIKO BATZUK

Bitartekariak, besteak beste, jarrera jakinak eta abilezia sozial positiboak izan behar dituzte, solidarioak izan, borondatez eta desinteresetik abiatuta jardun, hezkuntzako arloan jendarte-onarpena izan, komunikatzaile onak izan, eta nahikoa denbora izan halako prozesuetan laguntzeko.

Bitartekaritza-prozesuak hainbat fase ditu, prozesua abiarazteko beharrezkoa da hasierako etapan alderdiak hurbiltzea, horrek prozesua abiarazten lagunduko du, gero dagozkien azterketak egin eta gatazkaren diagnostikoa egingo da. Horrek, berriz, bidea emango du irtenbideak bilatzeko eta akordioak ezartzeko, lankidetzaren barruan eta aurretik alderdiek hala nahi badute. Oro har, bitartekaritza-prozesuak fase hauek ditu:

>>>5. taula. Bitartekaritza-prozesua²²

LEHEN ETAPA: Hasiera. Prozesua diseinatu.

- > 1. Komunikazioa, alderdiak elkarrengana hurbildu. Komunikazio-bideak berriro ezarri.
- > 2. Bitartekaritzaren helburuak zehaztu.
- > 3. Prozeduraren aurretiko akordioak diseinatu.

BIGARREN ETAPA: Gatazkaren egitura deskribatu.

- > 1. Beharrezko informazioa bildu eta funtsezko arazoei heldu.
- > 2. Oro har gatazka deskribatu: aurrekariak.
- > 3. Gatazkaren testuingurua. Arazoa identifikatu eta argitu.
- > 4. Gatazkaren dinamika.

HIRUGARREN ETAPA: Akordioak lortu.

- > 1. Beharrianak zehaztu.
- > 2. Helburuak eta alternatibak zehaztu gatazka kudeatze aldera.
- > 3. Akordioa eratu.
- > 4. Akordioa idatzi.
- > 5. Sinatu.
- > 6. Akordiokoa bete.

22. Burguet, M. (1999): *El educador como gestor de conflictos*, colección Aprender a Ser, Bilbao, Desclee De Brouwer. 26. or.

B.10. Gatazkarekiko erantzunak, hezitzaileen ikuspuntutik

Hezitzaileak gatazkan duen funtzioaz berba egiten dugunean, lehenbizi azpimarratu behar dugu bere funtzioa ez dela landutako pentsamendu bat helaraztea, ezpada ze ikasleak berak lantzeko behar diren tresnak sortzea eta erraztea. Hau da, irakatsi behar du arazoaren gainean zelan hausnartu eta arazoa zelan aztertu. Bideratzaile-funtzioa hartzen dugu, eta ez hezitzailearen edo irakaslearen tradiziozko funtzioa.

Ezagutzez gain, irakatsi egin behar dira baliabide praktikoak, egitea bera eta prozedurak (ohiturak sendotu eta abileziak erabili), baita izatea ere (jarrerak, balioak eta arauak). Baliok irakatsi behar dira: elkarriketa, errespetua, tolerantzia, elkarri laguntzea, justizia, parte-hartzea, pluralismoa, besteezko adeitasuna, elkartasuna, bizikidetza hobeezina lortzeko beharrezko abileziak eta estrategiak erabiltzea.²³



Paco Cascónek kontuan hartu du koherentea izatea zaila dela bai kontzeptuz ikasten den horrekiko, bai bizi izandakoak erakusten dituen jarreretikiko. Ikuspuntu sozioafektiboaren esparruan, pauso hauek proposatu dizkigu:

- ● Giro egokia sortu, taldea, konfiantza eta estimua sortzeko ariketen bitartez.
- ● Egoera bizi/esperimentatu, rol-jolasen, simulazioaren, bizipenen bidezko irakurketaren eta abarren bitartez.
- ● Nork bere ebaluazioa egin, bai zer sentitu duen, bai zer gertatu izan den. Eztabaida orokortu nahi da horrela, zirrarak denen aurrean adierazi, benetako bizitzaren esperientziekin lotu.
- ● Bizipen pertsonaletatik abiatuta, informazioa bildu eta aztertu, eta gero sakoneko gaiari heldu.
- ● Konpromiso eraldatzailea bilatu: zer egin dezakegun errealitate hori aldatzeko, gure errealitatetik abiatuta eta ditugun baliabideekin.

23. Gutiérrez, J.M. (2012): "De la violencia a la convivencia escolar" in Trinidad, A eta Gómez, J (koord.) (2012): *Sociedad, Familia, Educación. Una introducción a la sociología de la educación*. Editorial Tecnos, Madrid. 346. or.

B. XEHETASUN TEORIKO BATZUK

Ikuspegi sozioafektiboak bateratu egiten ditu informazioa transmititzea eta ikaslearen bizipen pertsonala, batez ere enpatia lantzeko.

Hori guztia, hau kontuan hartuta:²⁴

- Gehiago ikasten dugu, edukiak gure bizitzarekin zerikusia badu.
- Gehiago ikasten dugu, era aktiboan parte hartzen badugu.
- Irakasleek beste rol bat du: bideratzailearena.
- Hobeto ikasten dugu konfiantzazko giro batean.

Prebentzio-maila lantzeko, garrantzitsua da kontuan hartzea interakzio guztietan, bai pertsona biren artean, bai talde handiago bateko kideen artean –familia, lagunak, ikasgelakoak, lanekoak, etab.–, hiru osagai daudela, bereziki esanguratsuak eta zaindu behar ditugunak:

Barne hartzea, jarrera gisa eta talde osoaren balio gisa. Pertenentzia-sentimenduari lotuta dago. Talde barnean sartuta edo baztertuta sentitzeak bultzatzen gaitu jarrera konstruktibotik abiatuta lankidetzan jardutera, edo baztertzeak eragiten duen zauritik abiatuta era suntsitzailean arbuizatza.

Parte-hartzea, taldearen dinamika gisa; indartu egiten ditu erantzukizuna, parte-hartzea, lankidetzatza, sormena, erabakimena eta proaktibitatea.

Lankidetzatza-giroa barnean sartzearen eta parte-hartzearen adreiluekin eraikitzen da; taldekideen tirabirak era positiboan konpontzen laguntzen du.

Baina gatazka piztu bada, gogoan izan behar dut hasierako faseetan aurre egiten entrenatzea dela inteligentea eta eraginkorra.


Gatazkak pertsonen artekoa bada, erraztu eta lagundu >>

- > Ikasleak zer sentitzen duen kontzientzia har dezan.
- > Zer gertatzen ari den azter dezan.
- > Bestearen larruan jar dadin.
- > Bere erantzuna doitu dezan:
 - > Gaitzespen barik.
 - > Sentitzen ari den horretatik hitz eginez.
 - > Zer nahi duen proposamen moduan adieraziz.

Adibidez: "Horrenbeste itxarotera behartzen nauzunean, artaga eta gutxi errespetatzen nauzula sentitzen dut. Gustatuko litzaidake biok sasoiz iristea. Hau proposatzen dizut: irtetea, elkarri deitzea."

24. GEUZ, (2004): *Resolución de conflictos: curriculum para educación secundaria*, Bilbo, Gatazka Eraldatzeko Unibertsitate-Zentroa. 8. or.

B. XEHETASUN TEORIKO BATZUK



Gatazka talde barrukoa bada, erraztu eta lagundu > >



- > Iturburuak, eragileak eta eraginak aztertzen.
- > Protagonistak eta azpitaldeak identifikatzen.
- > Era positiboan eragin dezaketen pertsonak identifikatzen (elkarriketa).
- > Lankidetzazko parte-hartzea bultzatzen (giroa).
- > Lankidetzazko jardueren plana diseinatzen (giroa).

Hau da, ikuspegi sozioafektibotik lan egiten ahaleginduko gara, jokoan jarritz metodologia parte-hartzailea, lankidetzakoa, ludikoa, gogoeta eta iritzia sortzera sustatzen duena, edukiez gain jarrerak eta balioak azpimarratzeko; batez ere, hauek:

- ● Sinesmenak, aurreiritziak, estereotipoak-eta berraztertu, gure jokabidea bultzatzen dute eta.
- ● Tirabiretan, bestea “errudun”-tzat jotzeko ohitura alda dezadan entrenatzen aha- leginduko gara, geure buruari “Zer egin dezaket?” galdetu diezaiozun, hau da, nire erantzunen ardura har dezadan.
- ● Komunikazio eraginkorra entrenatu, hori da-eta mezuen “estalkia”. Berez, horrek gatazka jar dezake gorakada edo beherakada bidean, eta emaitza konstruktibora edo suntsitzailera eraman.

Egiaz, komunikazio-tresnak erabiltzea giltzarria da gatazkak era positiboan kudeatzeko. Era aktiboan entzutea, parafraseatzea, lehen pertsonan hitz egitea eta legitimazioa dira kontuan hartzeko komunikazio-tresnak. Komunikazio eraginkorra funtsezkoa da gatazkak gobernatzeko, eta helburu du esangura partekatua sortu eta ulertzea.

B.11. Gatazkaren-komunitate-ikuspegia

Komunitatea-eskola/eskola-komunitatea binomioa guztiz beharrezkoa da prestakuntza hiritar osoa izateko, ez bakarrik ikasleentzat, ezpada ze jendarte osoarentzat ere bai. Helburu askoz zabalagoak lortu behar ditu helburu pedagogikoak, hezkuntza-prozesu globalak hartu, protagonista nagusietara (ikasleak) eta ikasketa-edukietara mugatu barik, ateak ireki eta ezagutza sozialak errealitate sozialaren osagai guztien artean berreraikitzeke, pertsonen arazoetatik eta nahietatik abiatuta prozesuak eta jarduerak gauzatzeko.²⁵

Gatazka bizi dutenak sistema baten barruan daude (familia, eskola...), sistema hori beste baten barruan dago (auzoa, hiria) eta, era berean, hori beste baten barruan dago (herrialdea, mundua). Ez dago faktore bakarra berez azaltzen duena pertsona batek gatazka-ego- ra batean duen portaera; portaera hori, hain zuzen, hainbat faktoreren ondorioa da: biologi-koak, jendartearenak, kulturakoak, harremanetakoak, etab. Horrek behartzen gaitu hezitzaileak garen neurrian ikuspegi globala hartzera, gazte bakoitzaren beharrianak al- dera batera utzi barik eta familien eta beste hezitzaileen beharrianak kontuan hartuta, hezkuntza-espazioen eta komunitatearen arteko lankidetza-loturak ezarriz, komunitatea da-eta azken sozializazio-espazioa.



25. SUBIRATS, J. (2002): *Gobierno Local y Educación. La importancia del territorio y la comunidad en el papel de la escuela*. Bartzelona Ariel. 41. or.

B. XEHETASUN TEORIKO BATZUK

Ingurunea garrantzitsua da, bizikidetza hobetzeko hezkuntza-eragilea den neurrian, eta funtsezko osagai hauetan oinarrituta dago:²⁶

- ● Gizabanakoen ezaguera oinarritua dago bere ingurunean sortzen diren arazoen soluzioetan.
- ● Ingurunean metatutako esperientzia guztiek laguntzen dute bertan sortzen diren arazo berriak konpontzen.
- ● Gure ezagutzari zera ematen dio esangura eguneroko gorabehera eta gertaeretan gure ezagutza zelan erabiltzen dugun.
- ● Barneratutako ikasketak jendartearen testuinguruan lankidetzarekin aplikatu behar dira.



Beharrezkoa da lankidetza-modu berriak martxan jartzea eskolaren eta familiaren artean, eskola-bizitzan gurasoen parte-hartzea bultzatuz. Horretarako, lankidetza-eskema berriak ezarri behar ditugu, errespetuan oinarrituta, eta, era berean, lankidetza bideratu behar dugu denon arazoei aurre egiteko irtenbideak denok batera bila ditzagun. Gainera, komunitateari dagokionez, beste jendarte-eragile eta komunitate-eragile aktibo batzuekin lankidetzan jardutea bilatu behar dugu; esaterako, elkarte hiritarrak, gobernuz kanpoko erakundeak, administrazio publikoak, etab.

Komunitate-eredu bat bultzatzeak berrantolaketa handia dakar, ikasgelatik hasi eta ikas-tetxe osoaren antolaketa eta duen harremana komunitate, auzo edo herriarekin barne, elkarriketan oinarrituz. Komunitate-ereduak bidea ematen du edozein kulturak berdintasunean parte har dezan, komunitate osoa inplika dadin elkarriketan oinarrituz gatazken hasierako iturburuak eta jatorriak zein diren jakiteko, eta bidea ematen du, era berean, ilusioz beteriko egitasmoa garatzeko, umeek, neska-mutilek, egunean-egunean, gero eta gehiago ikas dezaten.

26. MARTINEZ, A. (2007): "Service-learnign o aprendizaje-servicios. La apertura de la escuela a la comunidad local como propuesta de educación para la ciudadanía", in Bórdón 59 (4). 627.-640. or.

B. XEHETASUN TEORIKO BATZUK

Ikaskuntza-komunitateak edo Inguruneko Hezkuntza Egitasmoak bezalako alternatibek hezkuntza ikuspuntu zabalago horretatik ulertzen dute; hezkuntza-ereduan orain arte eragin duten orekak aldatzen dituzte, nahiz eta oraindik sakoneko eztabaida planteatu ez den, eskolaren eta parte hartzen duten eragile guztien funtzioak birdefinitzeko eskatzen duena.²⁷

Gazteek euren ikastetxea, auzoa... hobetzeko zerbait egiten badute, euren ingurunearekin era proaktiboan izango dituzte harremanak, pertenezia-sentimendua barneratuko dute, gatazkekiko erabateko prebentzioaren jarrerarekin, “gatazkatsu” moduko “etiketen” bidez “ahal” dutela sentitu barik, **bizikidetzaren artea** ikasiko dute, **garrantzitsu, arduratsu eta gai** sentitzetik abiatuta. NAHI IZAN, AHAL IZAN, ETA EGITEN JAKIN.

Ba al dago hori baino hezigarriagorik?

mundua hobetu dezaten protagonistak egiten ditugu eta honen plazera sentiarazten:

- > **NAHI IZAN,**
- > **AHAL IZAN,**
- > **ETA EGITEN JAKIN.**

27. Flecha, R. (2005): *Las comunidades de aprendizaje como expertas en resolución de conflictos*. Bartzelona, CREA. 4.-5. or.



D

LANABESEN ONTZIA




D.1. Hainbat xehetasun metodologiko

Hezitzaile garen aldetik, zer egin dezakegu taldeetan gatazkei aurrea hartu eta elkarbizitza giroa hobetzeko? Askotan galdetzen diogu gure buruari nola jokatu beharko genukeen, zer metodologia edo dinamika aplika genezakeen, eginkizuna errazteko berariazko errezetaren bat ba ote dagoen; alabaina, azken batean behar dugun bakarra gure heziketa-eginkizuna langai ditugun talde formal edo ez formalen errealitatera egokitzea ahalbidetuko diguten giltzarri batzuk kontuan hartzea da.

Gatazkak ebazterakoan erabil ditzakegun tekniken bitartez, izan litezkeen irain edo hase-reak, sortzen diren emozioak eta sentimenduak edo agertutako iritzi desberdintasunak kudeatzeko gutxi gora behera egituratutako formulak aldeztu aurretik eskura ditzakegu. Horiei esker, helburu erabilgarri baterako balio dezake gatazkak, baina garrantzitsua da aintzat hartzea teknika horiek ez direla aldaezinak eta akatsik gabeak. Kriedlerrek¹ gogorarazten digun moduan, gure laneko ikasle taldea ezagutzea eta egoera bakoitzera egokitzen jakitea elementu erabakigarriak dira eginkizun horri aurre egiteko garaian.

Taldearen heldutasuna, neurria, jarduten dugun ingurua edo espazioa (formala edo ez formala), taldeko kide bakoitzaren ezaugarri indibidualak (adina, interesak, esperientziak, taldearen barruan jokatzeko dituzten rolak, heldutasuna, eta abar), elkarbizitzako arau partekatuak izatea ala ez... horrelako kontuak beti aintzakotzat hartu beharreko alderdiak ditugu.



Beste alde batetik, funtsezkoa da guk geuk hezitzaile moduan dugun zeregina, komunikatzeko eta ikasteko prozesuak erraztu eta ezagutza berriak eraikitzen eta analizatzen taldearekin era aktiboan parte hartu behar dugulako. Hau da, gogoetaren komunikazio, analisi eta orientazioko zenbait trebetasun izan beharko ditugu kontuan, eta gainera izan litezkeen egoerei aurrea hartzeko eta taldean jakin mina pizteko gai izan beharko dugu, taldekideen motibazioari eta parte hartze mailari eutsiz.

Beste alde batetik, gogoan izan beharko dugu bi direla interesatzen zaizkigun taldeko jardueraren planoak: taldekideen artean finkatzen diren harremanena bata, eta horiek eta garatzen den eginkizunaren artean finkatzen dena, bestea. Horrela, ager daitezkeen oztopoak detektatu ahal izango dira, bai talde barneko harremanetan, eta baita eginkizuna garatzeari eta lortu nahi den helburua betetzeari dagokionean ere.

1. Kriedler, W.J. (2011): *La resolución creativa de conflictos (manual de actividades)*. Aldi baterako batasuna: Persona y Familia zentroa, Giza Ongizaterako fundazioa – SURGIR.

Errazteko funtzioak

Agindu – behartu EZ	Gonbidatu—animatu BAI
Aurrejuzkurik EZ	Aditu BAI
Umiliatu EZ	Errespetatu BAI
Erantzunik eman EZ	Ondorioak bilatu BAI

Nabarmena da komunikazioak garrantzi berezia izaten duela gatazkak arautzeko edozein prozesutan. Hori dela eta, puntu honetan gelditu nahi dugu une batez, errazteko lan hori garatzen lagunduko dizueten komunikazio-tekniketako batzuk iradokitzeko. Honako hauek dira erabilgarrienetako batzuk: entzute aktiboa, galdera irekiak erabiltzea, indartze positiboa, mezu asertiboak igortzea, parafraseatzea, komunikazioa modu deskribatzailean bir-kokatzea, hitzik gabeko komunikazioa modu kontzientean erabiltzea: elkarri begiratzea, irribarrea, eta abar erabiltzea. Komunikazio eraginkorra izateko modua sintetizatu dugu koadro honetan:

Zer da Entzute Aktiboa?

Entzute Aktiboa besteen pentsamenduak, sentimenduak eta esperientziak ezagutzea eskatzen duen erantzuteko modu bat da; bestela esanda, enpatia. Horrek erakusten du entzuleak sinesten duela komunikazioa ez dela noranzko bakarreko prozesu hutsa, eta esaten denak merezi duela entzutea eta ulertzea. Bi parte hartzaileei ahalbidetzen die komunikazioko balore eta estiloetara buruzko informazioa aldatzea eta ulertzea, hitzez eta hitzik gabe. Epaitu gabe, enpatia eta errespetua erakusten dugunean, gizakiok hitz egiten jarraitzea animatzen gara, eta hobeto sentitzen gara gure pentsamenduak eta sentimenduak adieraziz.

Entzute Aktiboaren gidalerroak:

- Saia zaitez ulertzen bestea esaten ari dena eta esandakoarekiko sentitzeko modua.
- Hitzik gabeko portaeraren bitartez, ulertzen eta onartzen duzula erakutsi:
 - Ahots tonua
 - Aurpegiko espresioak
 - Keinuak
 - Jarrera
- Lagunaren pentsamendu eta sentimendu garrantzitsuenak errepikatu. Saia zaitez hori zeure hitzekin egiten.
- Ez eten, ez aholku edo iradokizunik eman. Ez zeuk izandako antzeko sentimendu eta arazorik adierazi.
- Neutraltasunez jokatu. Ez hartu alde bateko edo besteko jarrerarik.
- Galdera irekiak egin, mintzakidea kezkatzen duena hobeto ulertu ahal izateko.

Iturria: Geuz, 2004.

DINAMIKA INTERESGARRI BATZUK

Talde-dinamikak edo talde-teknikak gai jakin batzuk lantzeko erabil ditzakegun tresnak dira, gure ikasleek kasurik gehienetan modu praktiko eta jostagarrian lan egin eta ondorioak atera ahal izan ditzaten erabiltzeko modukoak. Era askotako alderdiei ekiteko erabili badaitezke ere, zinez erabilgarriak izaten dira lantzeko gogaikarriak edo korapilatsuak diren gaietarako. Horrenbestean, ez dira helburuak berez, baizik eta bitartekoak.

Konta ezin ahala talde-teknika edo -dinamika dago, eta erabat askotariko testuinguru eta jardute-sektoreetan erabiltzen dira, hainbat motako helburuak lortu ahal izateko. Ikus dezagun jarraian aurki ditzakegun teknika mota nagusien sailkapen orokor posible bat:

>>> 7. taula. Taldeko dinamika- edo teknika-mota nagusiak

Komunikatzeko erabiltzen ditugun zentzumenen arabera (4 mota)	Lortu nahi diren helburuen arabera (3 mota)
1 Bizipen-teknika edo -dinamikak Asmatutako egoera bat sortzeko balio dute, eta haren baitan pertsonak sartu egiten dira bertan, askatasunez erantzuten dute eta berezkoaren arabera jokatzeko. Teknika horiek taldea animatzeko zein analisi bat egiteko erabil daitezke.	1 Aurkezteko eta animatzeko teknikak edo dinamikak Izenak berak dioenez, parte hartzaileek taldearen aurrean euren burua aurkezteko eta gainerrako partaideak ezagutzeko erabiltzen dira, giro hurbilekoa, parte hartzekoa eta horizontala eraginez.
2 Emanaldia erabiltzen duten teknikak Tresna moduan gorputz-espresioa erabiltzea dute ezaugarri, eta horren bitartez hainbat jokaera eta pentsamolde irudika daitezke.	2 Analizatzeko eta sakontzeko teknikak edo dinamikak Teknika horien ezaugarri nagusia gai jakin baten inguruan analisia eta gogoeta bideratzea da.
3 Entzunezko eta ikus-entzunezko teknikak Soinua edo ikus-elementuekin edo irudiekin osatutako konbinazioak erabiltzea dute ezaugarri. Hainbat gairi buruz gehitzeko informazioa eskaintzea edota analisia eta gogoeta aberastea bideratzen dute.	3 Ebaluazio-teknika edo -dinamikak Garatutako hezkuntza-jarduera edo ekintza baten ebaluazio-ariketa bideratzen dute, etorkizunean antzeko jardueren garapena hobetzeko.
4 Ikuste-teknikak Idaztean eta elementu grafikoetan (marrazkiak, sinboloak, etab.) oinarrituta osatutakoak dira.	

Hezitzaileak garenez, ez zaigu ahaztu behar parte hartzeko teknika mota horien funtsezko helburuak direla parte hartzea lortzea, jakina, taldea animatzea, parte hartzaileak bertakotzea bideratzea eta landu nahi ditugun gaiak edo arazoak ulertu ahal izatea erraztea. Azken helburua parte hartzaileek landutako gaiari buruz duten pentsatzeko eta sentitzeko modua benetan aldatzea lortzea da.

Baina, zer talde-teknika erabili behar dut? Zein da egokiena kasu bakoitzean?

Atal honen hasieran aurreratu dugun legez, ez dago akatsik gabeko teknika bakar bat ere, ez erabat berdinak diren bi gazte-talde ere, eta ez une jakin batean gatazka-inguruabar edo egoera berberak bizi dituen talderik ere. Teknika horien bitartez, gatazkak ebazteko gure bitartekari edo kudeatzaile lana errazago egin dezakegu, eta erabilgarri izango ditugu teknika horiek, gure talde eta egoeretara modu malgu eta sortzailean egokitzen asmatzen dugun heinean.

Kasu bakoitzean aukeratzeko teknika mota era egokian hautatzen lagunduko diguten gakoetako batzuk bildu ditugu ondorengo koadroan:

Gatazkak ebazteko teknika bat aukeratzeko, kontu batzuk izan beharko ditugu gogoan, hala nola:

- ● Zein dira gatazkako partaideak? Informazioa jasotzen ahalegindu beharko dugu honako hauetaz: zenbat dira, zenbat urte dituzte, zenbateko heldutasun maila dute, zenbateko haserre maila dute...
- ● Zer gertatu da? Gatazkaren zergatiak edo arrazoiak ezagutzen saiatuko gara. Baliabideak eskuratzeari buruzko liskar soila al da ala baloreen inguruko gatazka konplexua? Zein da arazoa zehazki? Nola garatu da?
- ● Horri ekiten ahalegintzeko une egokia al da? Ba al dugu landu ahal izateko denbora nahikorik? Tartean dauden aldeak baretu behar al dira lehenengo? Goizegi al da liskarreko kontuei buruz hitz egiteko?
- ● Ebazpenak publikoa ala pribatua izan behar al du? Ebazpen publikoa abian jarritz gero, gatazkan partaide diren aldeak lotsatu egingo al dira? Ikasle guztientzako onuragarria izango al litzateke gatazka nola ebazten den ikustea? Talde osoak parte har al dezake gatazkaren ebazpenean?
- ● Zer teknika hautatu beharko litzateke ebazpen partikularrari ekiteko? Abian jarri nahi dugun dinamikaren ezaugarriak egokiak al diren galdetuko diogu geure buruari: Gatazka ebazteko teknika egokia al dirudi horrek? Taldearekin abian jarri ahal izateko teknika erraza al da? Zailtasuna aintzat hartuta, haurrek lehenengo trebatu egin beharko al dute? Zer baliabide beharko ditut? Baliabide horiek ba al dauzkate? Eta antzeko galdera gehiago.

Iturria: Kreidlerrengandik egokitua, 2011.

Jarraian, ikus dezagun orain arteko orrietan aipatu ditugun tekniketako batzuk nolakoak diren, laguntza handia eman ahal baitigute:

BISTARATZEKO TEKNIKAK²

Gatazkan dauden egoerak kanpotik bistaratzea ahalbidetzen digute, ikuspuntu eta jarrera desberdinetatik behatu eta hautemateko aukera eskainiz. Hainbat konponbide lantzen laguntzen digu eta bestearen lekuan jartzen, enpatia-gaitasuna garatuz.

ROL-JOKOA

Gatazka egoera batean oinarrituta, egoerako protagonisten rola jokatu dituzten gazteak hautatu ditugu. Egiazko denboran jokatzen da, eta rolen baitan protagonistak sentitzen doazenari bidea zabalik uzten dieten oinarritzko agindu batzuk daude; ziurrenik, eurek dauzkaten erreferente eta bizipenen arabera, elkarren arteko harremanek haien eragina jasoko dute. Funtsezkoa da kanpoko ikuskatzailen eginkizuna, horiek jasoko dutelako ikusitakoa idatziz, ondoren guztien artean bateratzeko.

SIMULAZIO JOKOA

Rol jokoan ez bezala, ez gara egiazko denboran arituko, baizik eta alde aurretik finkatutako arau batzuetan oinarritutako egoera bat itxuratuz. Jarrera eta erantzunen arteko interakzioak ez dira bizitzen, esparru teorikoan lehenagotik erabaki baizik.

DRAMATIZAZIOAK

Lan egiteko nahiko genukeen gatazka egoera bat antzezten da, taldeko gainerako kideek kanpotik ikustea ahalbidetuz. Une jakin batean, aukera eskaintzen zaie ikusleei aktoreak ordezkatzeko eta proposatutako egoerarentzako alternatiba edo konponbide posibleak aurkitzen ahalegintzeko.

BIZIPEN-IRAKURKETAK

Ikasleak pertsonaiekin, egoerekin edo argumentuarekin identifikatzea bilatzen da bertan, horiek berarengan zuzenean eragiteko moduan. Horrek errealitatea hautematen laguntzen dio, bere burua ulertzen eta munduan bere lekua bilatzen.

TXOTXONGILOAK

Gatazka egoera azaltzen da, hori irudikatzen duen bukaerarik gabeko antzezlan txiki batekin. Istorioaren bukaera -edo bukaerak- lantzeak aurkeztutako gatazkarantzako konponbide posibleak bilatzera eramango gaitu.

2. <http://www.edualter.org/material/euskadi/paco.htm>

GATAZKEN MAPAK

Gatazkan eragina izan duten alderdien analisi zehaztua egitea ahalbidetzen digute, gertatu dena testuinguru batean kokatu ahal izateko, nola lehenaldian, hala orainaldian, eta informazio ugari gureganatuko dugu esku hartu ahal izateko. Gatazkaren egiturari erreparatuz analizatu behar dugu: Pertsonak-Prozesua-Arazoa.

Gatazkaren krokis laburra:

PERTSONAK

Zeinek hartzen du parte eta zein modutan? Zein dira botere-edota eragin-oinarriak? Gatazkaren zer pertzepzio daukate? Nola eragiten die?

PROZESUA

Gaur egunera arte emandako prozesua analizatuz, zerk eragin zuen gatazka? Zer faktorek areagotu zuten? Zerk balio izan du baretzeko? Zer konponbide probatu dira? Zer emaitzarekin? Nola gauzatzen ari da komunikazioa? Zurrumurruen, este-reotipoen eta gezurrezko informazioaren eraginez, distortsiorik izan al da?

ARAZOA

“Funtsa” deskribatzea. Zein dira alde bakoitzaren atzean ezkutatuta dauden interesak eta beharrak? Balore-desberdintasuna. Konpontzeko arazoen zerrenda osatu. Dauden baliabideak analizatu.

ELKARRIZKETA ETA EZTABAIDARA ORIENTATUTAKO TEKNIKAK

komunikatzeko gaitasuna indartzen dute, gai jakin bati buruz taldean nork bere jarrerak eta ikuspegiak azalduz:

GIDATUTAKO EZTABAIDA

Bilerako zuzendariak taldea alde zuzetik prestatutako lan-gida baten gainean orientatuz moderatzen du eztabaida, helburu jakin batzuk lortzeko.

TALDE TXIKIETAKO EZTABAIDA

Bostetik zazpi lagunera bitarteko lantalde batek gai aske bat edo iradokitako bat aztertzen dute, eta emaitzak ez daude alde zuzetik aurreikusita, moderatzailearen figurarik gabe bada ere.

PHILLIPS 66

Denbora gutxian ondorio azkarrak lortzea bideratzen du. Talde handia 6 laguneko talde txikietan zatitzen da 6 minutuan zehar, eta gai jakin bati buruz hitz egiten dute.

BIDEO-FORUMA

Intereseko gai bati buruzko proiektzio bat egiten da, eta eztabaida zabaltzen da gero. Gai jakin bat lantzerantz orientatutakoa izan daiteke.

IDEIAK SORTZEKO TEKNIKAK

sormena, gainerakoen iritziekiko errespetua, elkarlana eta hitzarmenak egitea bideratzen dute.

BRAINSTORMING / IDEIA-ZAPARRADA

Taldeak ideiak adieraztea da helburua, espiritu kritikorik gabe.

ideiak... ideiak... ideiak... ideiak... ideiak...

ideiak... ideiak... ideiak... ideiak... ideiak...

ideiak... ideiak... ideiak... ideiak...

ideiak... ideiak... ideiak... ideiak...

ideiak... ideiak... ideiak...

ideiak... ideiak... ideiak... ideiak... ideiak...

ideiak... ideiak... ideiak... ideiak...

ideiak... ideiak... ideiak... ideiak... ideiak...

ideiak... ideiak... ideiak... ideiak... ideiak...

ideiak... ideiak...

ideiak... ideiak... ideiak... ideiak...

ideiak... ideiak... ideiak... ideiak...

ideiak... ideiak... ideiak... ideiak... ideiak...

4X4X4

Ideiak ekoitzi eta lehenestetik abiatuta, komunikazioa eta talde kohesioa hobetzerara orientatua. Banaka lehenengo, binaka gero, bi bikoteka ondoren eta horrela gehituz doa multzoa hurrenez-hurren, talde osoa inplikatu arte.

SCAMPER TEKNIKA

Zerbait hobetzen edo arazo bat konpontzen hasita, geure buruari zer ordezkatu, konbinatu, egokitu, aldatu, beste erabilera batzuetarako erabili, ezabatu edo berrordenatu daitekeen galdetzea da. Ideiak sortzea pizten du, eta azaltzen diren ideiak ondoren balioztatu egiten dira. Honako hauek izango lirateke galderak:

S Ordezkatu: gauzak, lekuak, denborak, pertsonak...

C Konbinatu: gaiak, ideiak, emozioak...

A Egokitu: beste testuinguru, eskola, pertsona batzuen ideiak, ebatzi nahi dugun egoerara.

M Aldatu: ideiak erantsi, gatazkako ezaugarriak eraldatu...

P Beste erabilera batzuetarako erabili: erabiltzeko bestelako aukerak bilatu.

E Ezabatu edo gutxienekora murriztu: arazoaren elementuak, zatiak...

R Berrordenatu edo alderantzikatu: rola lekuz aldatu...

D. LANABESEN ONTZIA

Metodologiaren inguruko atal hau bukatzeko, gatazkak kudeatzeko lehen pausoei aurre egiteko akuilu bezala balio ahal diguten zenbait talde dinamika eginerraz zehaztuko ditugu jarraian:

GATAZKARI BURUZKO IDEIA-ZAPARRADA

HELBURUAK: Gatazka definitzea. Gatazkarekin lotutako asoziazio positibo eta negatiboak aztertzea.

IRAUPENA: 20 minutu.

MATERIALAK: Arbela.

PROZEDURA:

- Gazteei gatazka bat zer den galdetu, adibideak ere emanez.
- Gatazka batean sartuta izan ziren azkeneko aldia gogoan hartu eta azterrarazi.
- Ikasleei GATAZKA hitza entzuten dutenean pentsatzen dituzten hitz guztiak zerrendatzeko eskatu. Arbelean idatzi.
- Ideia-zaparrada horren ostean, eskatu identifikatzeko zerrendako zein hitz diren positiboak, zein negatiboak eta zein neutralak.
- Ikasleei zehaztu zerrendako zein hitz diren positiboak eta zein neutralak.
- Taldearekin eztabaidatu:
 - Zein kategoriak zituen hitz gehien? Zergatik?
 - Zein kategorია izan da zailena? Zergatik?

ROL-JOKOAK

HELBURUAK: Proiektatutako ekintzak ulertu eta hobetzea. Egoeren inguruko kontrol pertsonala handitzea. Emozioak hauteman eta ulertzeko gai izatea. Taldearen kohesioa garatzea eta konfiantza pertsonala handitzea.

IRAUPENA: 30 minutu.

MATERIALAK: Ahalik eta gutxien, antzerki bihur ez dadin.

PROZEDURA:

- Xehetasunak zehaztu. Ekintza, agertokia, abiapuntuko gatazka-inguruabarrak, eta abar deskribatu.
- Rol guztiak banan-banan zerrendatu eta adierazi. Horiek banatu eta esleitu.
- Aktoreak gatazka antzeztan hasi daitezen eragin. Blokeatzen badira hitz giltzarriak erabiliz lagundu.
- Jarduera gatazkaren une gorenean geldiarazi. Gainerako taldekideei iradokizunak eskatu ondoren egin litekeenaz, eta, rol-jokoa bukatzeko, euren ideiak jokoan txertarazi.
- Jokoa amaitzen denean, talde osoa elkartuta eztabaidatu.
 - Nola ekidin ahal izango zen gatazka?
 - Nola sentitzen ziren pertsonaiak egoera horretan?
 - Konponbide egokia iruditzen al zaie?
 - Zer beste konponbide azter zitezkeen?

ROLAK ALDATZEA

HELBURUAK: Proiektatutako ekintzak ulertu eta hobetzea. Egoeren inguruko kontrol pertsonala handitzea. Emozioak hauteman eta ulertzeko gai izatea. Taldearen kohesioa garatzea eta konfiantza pertsonala handitzea.

IRAUPENA: 30 minutu.

MATERIALAK: Ahalik eta gutxien, antzerki bihur ez dadin.

PROZEDURA:

- Lehen deskribatu duguna bezalako rol-jokoa finkatu. Egiazko gatazkan partaide eta eraginpeko direnek jokoan parte har dezaten ahalegindu.
- Rol-jokoa hasitakoan, geldiarazi egin behar da, partaideek paperak alda ditzaten eta jokoa errepika dezaten eraginez, euren burua lehengo rolean nolabait euren burua zen harengandik babesten saiatuz.
- Jokalariak beste pertsonaren ikuspuntua bereganatu dutela ohartzen garenean, rol-jokoa gelditu.
- Jokoiari buruz eztabaidatu eta arazoa konpontzeko biderik aurki al daitekeen azaldu.

ADOSTASUNA LORTU

HELBURUAK: Hitzarmena lortzeko lankidetzak eta negoziazio-trebetasunak garatzea.

IRAUPENA: 50 minutu.

MATERIALAK: Arbela.

PROZEDURA:

- “Adostasun” hitza arbelean idatzi eta definitu. Adostasuna gauzatzen da talde batek taldekide guztiek onartzeko moduko erabakia hartzen duenean, erabaki hori taldekide guztientzako aukerarik onena ez baldin bada ere.
- Taldearekin ideia-zaparrada bat egin eta irteera posibleen zerrenda bat osatu (25 aukeratik 30era bitartean). Jarraian, pertsona bakoitza egingo lituzkeen bost txango aukeratzera animatu.
- Taldea hiruko multzoetan zatitu eta adierazi denen artean guztiek egingo lituzketen lau txangoekin zerrenda bat osatu behar dutela.
- Egindako multzoak seiko taldeetan konbinatu. Une horretan, talde bakoitzeko bi irteera aukeratu beharko dituzte adostasunez.
- Talde osoaren aurrean bateratu. Taldeek euren lehentasunak azaldu ondoren, azkenik irteera bakarra aukeratzeko dute elkarren artean adostuta.
- Prozesu horrek gazteentzako zer ekarri duen eztabaidatu.
 - Zer arazo izan dituzte adostasuna lortzeko?
 - Nola lortu dute?
 - Zer arrazoigatik hautatu dituzte irteera batzuk eta besteak? Eta beste hainbat galdera.

Jakina, elkarren artean desberdinak diren gatazka-egoerei aurre egiteko aurki ditzakegun talde-dinamika eta -teknikak hain ugariak izanik, gida honetan ezin ditugu guztiak era zehaztuan aztertu. Beste alde batetik, duInen helburua ez da talde-dinamiken errezeta-liburu edo eskuliburu bat osatzea ere.

Dena den, argi eta garbi helaraztea nahiko genuke gatazkei era positiboan ekiteko eta haiek bake bidez ebazten gure taldeak trebatzeko, gure pentsaera zabaldu beharko dugula, malguak izan, gure sormena abian jarri, eta gogoan izan, azkenean, **modu positiboan aurre egiteko geure estiloa sortuz bukatuko dugula**, gure gazteekin praktikan jartzeko, talde-kultura erraztu eta sortuz.



D.2. Esperientzien fitxak

12NUBES PROIEKTUA Vitoria-Gasteiz, Araba.

Hezkuntza-arloa: Formala/Ez-formala/Komunitarioa.

Talde hartzailea: 12 eta 20 urte arteko nerabeak eta gazteak.

Erakunde bultzatzailea: Vitoria-Gasteizko Udalaren Kaleko Hezkuntzako Udal Programa.

Gizarte Gai eta Adinekoen Saila.

Komunitate Ekintzako Zerbitzua. IRSE ARABA elkarteak kudeatutako programa. www.irsearaba.org



DESKRIBAPENA	Berrikuntza pedagogikoko proposamen honek hezkuntza formaleko eta ez-formaleko ekintzak uztartu nahi ditu. Sarean eta kalean egiten da, eta J. Manuel Septienek idatzitako “Nubes de tiza” liburua irakurtzea eta ulertzea da jardueraren oinarria, gazteen mundutik hurbil dauden gaiei heltzen dielako. “12nubes” proiektua tresna egokia da gazteek hausnartzeko eta parte hartzeko, esparru zabaleko gizarte- eta hezkuntza-jarduerak erabiltzen dituelako (blog bat sortzea eta bertan parte hartzea, taldeka-banaka lan desberdinak egitea, adierazpide artistiko desberdinak erabiltzea: argazkigintza, grafitia, musika, etab.). Sareko tutoretza-ekintza gisa proposatzen da, berariaz sortutako blogaren bidez lantzeko, gazteen mundu birtuala eta erreala bateratuta. Proposatutako 12 hodeiak 12 gai dira, liburuan garatu eta gazteek hautatuak. Gazteei interesatzen zaizkien gaiak hartzen dituzte barne, eta tutoretza-ekintzaren ardatza dira.
ERABILITAKO BALIABIDEAK	Hodei-gai bakoitza blogean txertatzen da, gazteen taldeek eta elkarteek prestatutako ikus-entzunezko materialez lagunduta. Hodeiekin batera, honelakoak sartzen dira, profesionalentzako laguntza-material gisa: kanta bat, argazki-album bat, bideo bat, grafiti bat eta PDF artxibo bat.
LANTALDEA	Talde eragilea: Carlos Cordovilla (kaleko hezitzailea) eta J. Manuel Septien (idazlea eta irakaslea), Kaleko HezkuntzaKo Programako gazte irakurleen taldea eta Francisco de Vitoria BHIko ikasle batzuk (blogeko edukia egiteko laguntza), Saregune taldea (webgunearen diseinua), adituen taldea, Sinpa artista grafikoa (Diego Bertruguet), Gasteizko hainbat rap-kantari, Cuarzo Posse hiri-kulturako taldeko gazteek kudeatutako grabazioko estudioak (14 eta 17 urte arteko gazteak) eta gazte-talde bat, hainbat eginkizun egiteko laguntza emanez.
TARTEAN DAUDEN GIZARTE ETA HEZKUNTZAKO ERAGILEAK	12 eta 20 urte arteko gazteak, bertako artistak, gizarte-eragileak, kaleko hezkuntzako alderdietako taldeak, ikastetxeak (Francisco de Vitoria BHI, Miguel de Unamuno BHI eta Divino Maestro LHI), tokiko erakundeak (Saregune, Emaize, AiLaket!), udal-baliabideak (Asexoria), udal-zerbitzuak (Norabide, El Pilarreko Oinarrizko Gizarte Zerbitzua), eta osasun- eta hezkuntza-arloko profesionalak, eta gizarte eta hezkuntzako esku-hartzeko beste profesional batzuk.
HASIERAKO EGUNA ETA IRAUPENA	2014an prestatua, 2015eko otsailaren 3an abian jarri eta 2015eko maiatzaren 15ean amaitua.
BALIOESPENA	<u>Emaitza eta hobekuntza nagusiak:</u> Lan handia egin da hausnarketa eta eztabaida egiten, blogeko materiala sortzeko, sarea eta IKT-ak gazteen kodeekin erabiliz, baina modu hezigarri batez. Gazteen autokudeaketa sustatu da. <u>Eragin orokorra:</u> Komunitatearekiko lotura, arlo formaleko eta informaleko eragileak eta baliabideak uztartu, eta haien arteko harremanak estutu baitira. <u>Aurkitutako zailtasun eta oztopo nagusiak:</u> Ikastetxeen konpromiso-maila baxua, zaila baita mota honetako proiektuak beren hezkuntza-dinamiketan txertatzea.
KONTSULTAK EGITEKO PERTSONA	Carlos Cordovilla, Vitoria-Gasteizko Udalaren Kaleko Hezkuntzako Udal Programakoa.

BLOGA: 12nubes

KONTAKTUA

Helbide elektronikoa:
ecalle.elpilar@vitoria-gasteiz.org

Telefonia:
+34 945 161 280
+34 688 650 677

ZUK IKASIZ GERO, NIK HOBERA EGINGO DUT ETAPEN ARTEKO TUTORIZAZIOA. Vitoria-Gasteiz, Araba. IKASKUNTZAKO KOMUNITATEAK.



Hezkuntza-arloa: Formala.

Talde hartzailea: Ikastetxeko ikasle guztiak.

Erakunde bultzatzailea: IPI Sansomendi.

DESKRIBAPENA	Proiektuak lau jarduera ditu, gaztelania, euskara, matematika eta natura-zientzietan. Ikaslerik helduenak gazteenen tutore gisa aritzen dira, eduki akademikoak elkarrekin ikasten dituzte, eta hainbat balio jartzen dituzte praktikan, hala nola elkartasuna, begirunea eta ahalegina, irakurketako eta laborategiko gidaritza, haur-hezkuntzako talde eragin-trukatzaileetako boluntariotza, eta matematikako gidaritza erabilia.
ERABILITAKO BALIABIDEAK	Ikasketa dialogikoa oinarritzat hartuta, ikasketak ahalik eta gehien sustatu behar dira, ikasleen arteko eragin-trukea bultzatuz. 2013ko ekintza magistralari Saria >> Erreportaia >> Bideoa >>
LANTALDEA	Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasleak.
TARTEAN DAUDEN GIZARTE ETA HEZKUNTZAKO ERAGILEAK	Familiak eta hezkuntza-komunitateko beste eragile batzuk oso sartuta daude ikastetxearen funtzionamendu orokorrean, eta sutsuki hartzen dute parte hainbat batzorde mistotan. Gainera, boluntario aritzen dira talde eragin-trukatzaileetan, eta literatura-hizketaldi dialogikoetan hartzen dute parte. Sansomendiko Helduen Hezkuntza Iraunkorreko Eskolarekin elkarlanean, prestakuntzako eskolak ematen zaizkie familiei.
HASIERAKO EGUNA ETA IRAUPENA	2012an hasi zen, eta gaur egun abian dago oraindik (2015eko maiatza).
BALIOESPENA	 <u>Emitza eta hobekuntza nagusiak:</u> Ikasleek ikastetxeaz eta ikasle gisa haien buruaz duten irudia hobetzea. Jarduera guztiak lagungarriak dira etapa batetik bestera igarotzeko, batez ere Lehen eta Bigarren Hezkuntza artean, ikasleek ikasketak goiz utz ditzaten eta horren ondorioak saihestu ahal izateko. <u>Eragin orokorra:</u> Familiak harro daude ikasle helduenek erantzukizun handiko zereginak egiten dituztela ikusita, eta txikiak oso pozik daude nagusiak arduratzen direlako haiei irakasteaz. Atsegina da ikasle txikiak nola adierazten duten poza tutorizazioa egiteko unean. ->> Hezkuntzako Sari Nazionala 2014 “Éxito escolar: la puesta de una comunidad educativa” proiektuarekin. Hezkuntza Ministerioa <<- <u>Aurkitutako zailtasun eta oztopo nagusiak:</u> Etapa guztietako irakasleek egin duten ahalegina, koordinazio es-tua behar baitzen tutorizazioak antolatze eta ebaluatze.
KONTSULTAK EGITEKO PERTSONA	Eva Sancho, ikastetxeko zuzendaria; Jaione Gaztañaga, ikastetxeko ikasketaburua eta Yolanda Arrese, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasketaburua.

IPI Sansomendi



ipi-sansomendi

KONTAKTUA

Helbide elektronikoa:
010572aa@hezkuntza.net

Telefona:
+34 945 170 415

ESPAZIOAK ETA DENBORAK KUDEATZEA ETA HOBETZEA

Cudillero eta Muros de Nalón kontzejuak, Asturias.

Hezkuntza-arloa: Formala.

Talde hartzailea: DBHko ikasleak (12 eta 16 urte artekoak).

Erakunde bultzatzailea: Selgas BHI.



DESKRIBAPENA	Hasieran, plastikaren arloko proiektu bat zen, ikasgelan egindako jarduerak ezagutzera ematekoa, baina gaur egun ikastetxearen proiektu bat da. Ikasleek erabiltzen dituzten espazio komunak estetikoki hobetu nahi du, gune horiek egokiagoak izan daitezen eskolako instalazioak elkarbizitzarako espazioa izateko eta sorkuntza artistiko-plastikoaren bidez gatazkaren iturburuak ezabatzeke.
ERABILITAKO BALIABIDEAK	“La plástica sale del aula” proiektua abiaburutzat hartuta, parte-hartzean oinarritutako dinamika batzuk egin ziren, ikasleek ikastetxean dauden erabilera komuneko espazioetan egindako elkarlanaren bidez: “La plástica sale del aula” (DBHko 1.); “El patio de mi instituto es particular” (DBHko 4.); “Creación de la Sala Polivalente” (DBHko 3.); “Las polígonas” (DBHko 1.); “Un Patio para todos/as” (DBHko 3.); “Y tú nos representas” (DBHko 4.); “Pictodiferenciarte” (DBHko 4.). Ikastetxera iritsitako DBHko 1. mailako ikasle berriak sartzen dira urtero, espazioa beraiena dela senti dezaten. Informazio + >>>
LANTALDEA	Sail guztietako irakasleak, Arte Plastikoen Sailak koordinatuta.
TARTEAN DAUDEN GIZARTE ETA HEZKUNTZAKO ERAGILEAK	Elkarlan zehatzak, Cudillero eta Muros de Nalón kontzejuetako elkarteekin.
HASIERAKO EGUNA ETA IRAUPENA	2011-2002 ikasturtean hasi zen, eta gaur egun abian dago oraindik (2015eko maiatza).
BALIOESPENA	<u>Eraitza eta hobekuntza nagusiak:</u> Jolas-orduan elkarbizitzari buruz hartutako neurriek nabarmen egin dute behera, ikasleen arteko gatazka-kopuruak ere bai, eta espazio komunak erabileraren inguruan sortutako gatazkak ere jaitsi dira. <u>Eragin orokorra:</u> Elkarbizitza eta espazio komunetikiko errespetua hobetu dira, denok erabiltzeko eta ondo pasatzeko guneak direla uste dutelako. <u>Aurkitutako zailtasun eta oztopo nagusiak:</u> Proiektuak finantzatzea.
KONTSULTAK EGITEKO PERTSONA	Ascensión Andrés Miguel, arlo artistiko/plastikoko irakaslea.

Selgas Institutua

BLOGA: “Pasión por la plástica”

KONTAKTUA

Helbide elektronikoa:
selgas@educastur.princast.es

Telefonoa:
+34 985 590 123
+34 985 590 258

D. LANABESEN ONTZIA

ACTUEM! PROIEKTUA +

DESLIMITA'M PROIEKTUA ANTZERKI SOZIALA GAZTEENTZAT

Bartzelonako auzoak eta Bartzelonako eskualdeko udalerriak, gazteen zentroetan eta ikastetxeetan.

Hezkuntza-arloa: Formala/Ez-formala/Komunitarioa.

Talde hartzailea: Gizarte baztertuta dauden edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden gazteak eta nerabeak (12 eta 20 urte artekoak).

Erakunde bultzatzaileak: La Roda Fundazioa eta ImpactaT Elkartea.



DESKRIBAPENA	Actuem!: Eskola-aldian antzerki sozialeko tailerrak antolatzea, Bigarren Hezkuntzako hainbat ikastetxetan eta 12 urtetik gorako ibilbidea duten gazte-zentroetan. Deslimita'm: Antzerki-jardunaldia/antzerki foroko saio irekia Barts Antzokian: Gazte osatutako 10 taldek gehenez 10-15 minutuko iraupena duten antzezlanak antzezen dituzte. Gazteek antzerki sozialak dituen onurak erakusten dituzten hainbat ikastetxetan jaso dute prestakuntza. Ikusleek eta antzezleek iritziak trukatzeko, antzeztutako arazoak hobeto eta sakonago ulertu ahal izateko.
ERABILITAKO BALIABIDEAK	Zapalduaren Antzerkia (Augusto Boal), irudi-antzerkia, antzerki eragin-trukatzailearen eta antzerki forumaren teknika bereziak; aitzaki dramatikoak: hausnarketa eragin ahozko kontakizun edo istorio bat abiaburu izanda eta gazteek era aktiboan parte hartuta.
LANTALDEA	Actuem! proiektuko Antzerki Sozial eta Zapalduaren Antzerkiko tailerrak La Roda Fundazioak bultzatzen ditu, eta ImpactaT Elkarteko profesionalak ematen dituzte: antzezleek, psikologoek eta gizarte-hezitzaileek.
TARTEAN DAUDEN GIZARTE ETA HEZKUNTZAKO ERAGILEAK	Astaldiko erakundeetako hezitzaileak, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako hezkuntza-arduradunak eta erakunde bultzatzaileetako arduradunak.
HASIERAKO EGUNA ETA IRAUPENA	Actuem! proiektua: 2006an hasi zen, eta gaur egun abian dago oraindik (2015eko maiatza). Deslimita'm proiektua: 2008/2009 ikasturtean hasi zen, eta gaur egun abian dago oraindik (2015eko maiatza).
BALIOESPENA	Emaizta eta hobekuntza nagusiak: Zailtasunen eta, oro har, gatazken aurrean hausnartzeko ahalmena piztea. Trebetasun sozialak hobetzea eta talde-lana sustatzea. <u>Eragin orokorra:</u> Actuem eta Deslimita'm proiektuek esperientzia erakusten dute, pertsonen uneko gatazka sozialei buruzko hausnarketa egin dezaten, eta ikuspegi zabalagoa izan dezaten gaur egungo gazteek aurre egin beharreko errealitate desberdinei buruz. <u>Aurkitutako zailtasun eta oztopo nagusiak:</u> Antzerki Soziala, bere oinarriak eta antzerki amateurreko proposamenarekin duen desberdintasuna uler daitezen lortzea. Baliabide ekonomikoak aurkitzeko zailtasuna.
KONTSULTAK EGITEKO PERTSONA	Anna Corbella i Albero, La Roda Fundazioaren zuzendaria. Anna Caubet eta Silvia De Toro, ImpactaT Elkarteen zuzendariak.

ImpactaT Proiektua

La Roda Fundazioa

KONTAKTUA

Helbide elektronikoa:
administracio@fundaciolaroda.cat
impactat@gmail.com

Telefona:
+34 934 147 201

ENTRE COLES Soto del Real, Madrilgo Erkidegoa.

Hezkuntza-arloa: Formala.

Talde hartzailea: DBH eta Batxilergoko ikasleak.

Erakunde bultzatzailea: Sierra de Guadarrama BHI.



DESKRIBAPENA	Ikasturtearen hasieran, tutoreek hainbat sentsibilizazio-jarduera egiten dituzte ikasgelan aniztasuna kudeatzeko, ikastetxeak berak sortutako DVDa oinarritzat hartuta. Tutoretza-orduetan ere hainbat jarduera-fitxa egiten dira. Jarduera horien bidez, ahalik eta gehien erraztu nahi da Espainiako beste herri batzuetatik heldutako ikasleei eta, oro har, etorkinak direnei harrera egiteko modua. Kultura arteko hezkuntza sustatu, eta arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatu nahi da. Ikastetxeko ikasleen %15 atzerritarrak dira, eta 20 herritartasun baino gehiago daude, baina Marokoko komunitatea da nagusi.
ERABILITAKO BALIABIDEAK	Jarduerak "Entre Coles" DVDan oinarrituta daude. Bertan, 2000-2007 aldian Marokotik Espainiara iritsitako ikasleen testigantzak daude jasota. Sentsibilizazioko material hori prestatzeko, grabatzeko eta muntatzeko lanetan, ikasleek, irakasleek eta ikus-entzunezkoen arloan eskarmentua duen ikasle baten aitak hartu zuten parte, eta Arabiera eta Marokoko Kultura ikasketa-programako Ben Youssef Bouffous irakaslea ere elkarlanean aritu zen unean-unean.
LANTALDEA	Sierra de Guadarrama BHIko ikasleak eta irakasleak.
TARTEAN DAUDEN GIZARTE ETA HEZKUNTZAKO ERAGILEAK	Ikasleak, irakasleak, eta Udaleko Gizarte Zerbitzuetako kultura-bitartekaria.
HASIERAKO EGUNA ETA IRAUPENA	2006-2007 ikasturteko DVDa prestatzeko esperientzia 2007-2008 ikasturtean hasi zen, eta jardunean dago oraindik (2015eko maiatza).
BALIOESPENA	<u>Eraitza eta hobekuntza nagusiak</u>: Lagungarria da Espainiako ikasleen eta etorkinak diren horien artean dauden aurreiritziak arintzeko eta ezabatzeke. Gainera, ikasleek eta irakasleek enpatia azaltzeko duten gaitasuna garatzen du, eta hori ona da ulermena hobetzeko. <u>Eragin orokorra</u>: : Ikasleek kontzientzia hartu dute haiena ez den giro eta kultura batera egokitzeko zailtasunez. ->> Ikastetxeko hezkuntza-proiektuak Hezkuntza Ministerioaren 2008ko Elkarbizitza Saria jaso zuen <<- <u>Aurkitutako zailtasun eta oztopo nagusiak</u>: Ikasle asko daude ikasgela bakoitzeko eta horrek zaildu egiten du irakasteko lana.
KONTSULTAK EGITEKO PERTSONA	M ^a Irene Lema Martínez, Loturako Ikasgelako irakaslea; Raquel Rodríguez Rodríguez, Gorputza Hezkuntzako irakaslea eta Elena Hernández, orientatzailea.

ENTRE COLES Proiektua

Ikastetxean Bitartekotza-Programa

KONTAKTUA

Helbide elektronikoa:

instituto.soto@yahoo.es

ies.sierradeguadarrama.soto@educa.madrid.org

Telefonoa:

+34 918 479 299

ELKARBIZITZAREN ALDEKO AHOTSAK

Ciempozuelos, Madril.

Hezkuntza-arloa: Formala.

Talde hartzailea: DBHko 3. mailatik gorako ikasleak, ikasle oiak eta irakasleak ere borneyan hartuta.

Erakunde bultzatzailea: Francisco Umbral BHI elebiduna.



DESKRIBAPENA	Hezkuntza- eta arte-izaerako proiektu honetan, oso profil desberdinetako 12 eta 18 urte arteko gazteek hartzen dute parte, 2 koru-taldetan banatuta (junior eta seniorrak) eta kamerako beste koru-talde batekin. Helburu hauek ditu: hezkuntzako integrazioa bultzatzea, gizarte-bazterketako egoerei aurrea hartzea, talde-lanaren balio etikoak eta ingelesaren erabilera sustatzea, gizarte- eta arte-izaera nabarmenduta. Ongintzako kontzertuak eta jarduerak sozialak egiten dira ospitaletan, adinekoentzako zentroetan, etab.
ERABILITAKO BALIABIDEAK	Koruan parte hartu nahi duten ikasleek hezkuntza-kontratua sinatzen dute, beren garapen pertsonalarekin eta hezkuntzako garapenarekin duten "konpromisoa" adierazteko, eta ikastetxean elkarbizitza sustatzen ari-tuko direla adierazteko. Bloga eta Facebook-a erabiltzen dira proiektua ezagutarazteko, eta Ciempozuelosko Gazteen Zinegotzigoaren entsegu-aretoak eta musika- eta multimedia-gelak ere bai.
LANTALDEA	Alfonso Elorriaga, zuzendaria; Marta Martínez, piano-jotzailea; Candelas Pañeda eta Catherine Lehman, ahots-teknikako laguntzaileak eta Antonio Gallardo, taldeko ordezkaria.
TARTEAN DAUDEN GIZARTE ETA HEZKUNTZAKO ERAGILEAK	Hezkuntzako proiektuak Ikasleen Elkartearen, ikastetxeko Gurasoen Elkartearen, institutuko zuzendaritza-taldearen, eta Ciempozuelosko Udaleko gazte, hezkuntza eta kulturako zinegotzigoen bultzada jaso du. 2011-203 urteen artean Hezkuntza Ministerioko ARCE programaren finantzaketa jaso zuen proiektuak.
HASIERAKO EGUNA ETA IRAUPENA	2008an hasi zen, eta gaur egun abian dago oraindik (2015eko maiatza).
BALIOESPENA	 <u>Emitza eta hobekuntza nagusiak:</u> Proiektuak ekarpen nabaria egin du parte-hartzaileen autoestimua hobetzeko, eskola-erakundean sustraituago egoteko, ia erabat ezabatu du eskola-absentismoa, eta lagungarria izan da parte-hartzaileen emaitza akademikoak hobetzeko. <u>Eragin orokorra:</u> Bikaina. Gaur egun, proiektua ereduizkoa da udalerriko hezkuntza-arloan, eta aktiboki ematen die laguntza inguruko ongintzako eta gizarte-arloko erakunde guztiei. ->> BBVA "Acción Magistral 2014" hezkuntza-sariko proiektu finalista <<- <u>Aurkitutako zailtasun eta oztopo nagusiak:</u> Oro har irakaskuntzan tradizio artistikorik ez dagoenez, hasieran batzuek aurre egin zioten proiektua garatzeari.
KONTSULTAK EGITEKO PERTSONA	Alfonso Elorriaga, koruko zuzendaria.

Francisco Umbral BHI

Elkarbizitzaren aldeko ahotsak

DOCUMENTALA: Proiektua

KONTZERTUA: Proiektua

KONTAKTUA

Helbide elektronikoa:
aelorriagallor@educa.madrid.org

Telefona:
+34 918 092 810

HEZKUNTZAKO BAKE-EPAILEA BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIARE JUSTIZIAN HEZTEN PROGRAMAKOA (CGPJ).

Patiño, Murtzia.



Esku hartzeko arloa: Formala.

Talde hartzailea: DBH (12-16 urte), maila ertaineko eta goi mailako LH, eta Batxilergoa (16 urtetik aurrera).

Erakunde bultzatzailea: Murtziako Eskualdeko Justizia Auzitegi Nagusia, CGPJ, Murtziako Eskualdeko Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Kontseilaritza (CARM), Ingeniero de la Cierva BHI.

DESKRIBAPENA	“Hezkuntzako bake-epailea” proiektuan, irakasleei eta ikasleei prestakuntza ematen zaie bake-epaile (bitartekari) gisa jardun dezaten, justizia leheneratzaileko esperientziak sustatzeko (eragindako kalteak ordaintzeko prozeduran oinarrituta, ikasleen arteko gatazkak konpontzeko), elkarbizitza sozialeko giro hobea lortzeko, eta herritar arduratsuak izateko, hezkuntza-komunitatean arazoak konpontzeko gai izateko behar diren ezagutzeak eta trebetasunak hornitu ondoren.
ERABILITAKO BALIABIDEAK	Prestakuntza emateko erabiltzen diren materialak Hezkuntza Kontseilaritzak eta Murtziako Eskualdeko Justizia Auzitegi Nagusiak (TSJRMk) prestatu dituzte, eta, ildo horretan, hezkuntza juridikoa emateaz gain, gatazkak konpontzeko gaietara, bitartekaritzara, adimen emozionalera eta justizia leheneratzaileko protokoloetara bideratu dituzte edukia.
LANTALDEA	Koordinatzailea, noizbehinka lankidetzan aritzen diren hiru irakasle, ikasleen gurasoak, epailea, Gurasoen Elkarte, eta zuzendaritza-taldea, batez ere ikasketaburua.
TARTEAN DAUDEN GIZARTE ETA HEZKUNTZAKO ERAGILEAK	JUSTIZIAN HEZTEN programaren bidez laguntza ematen duten Murtziako Eskualdeko erakunde judizialeko magistratuen, epaileen, fiskalen eta langileen parte-hartze sutsua eta konpromisoa, bai eta hezkuntza-komunitatearena ere.
HASIERAKO EGUNA ETA IRAUPENA	2007-2008 ikasturtean hasi zen, eta gaur egun abian dago oraindik (2015eko maiatza).
BALIOESPENA	<u>Emaizta eta hobekuntza nagusiak:</u> Bake-epailetaren ebazpenaren ondoren, behera egin du ikastetxetik bidalitako ikasleen kopuruak, eta taldeko elkarbizitzak nabarmen egin du hobera (gatazka gehienak taldean-ikasgelan izaten dira). <u>Eragin orokorra:</u> Bake-epaile izateko prestakuntza hartzen duten ikasleek eskuratzen dituzten ezagutzeak eta trebetasunak eragin nabaria dute, hala haien jokabidean, nola inguruan dituzten kideen jokaeran, batez ere gatazka hasi berriak direnean. Gainera, “onura” hori jasotzen duten ikasleek hezkuntza-komunitate osotik hedatzen dituzte balio horiek. <u>Aurkitutako zailtasun eta oztopo nagusiak:</u> Justizia zigortzailea nagusi den kulturaren (“egin duenak ordaindu behar”), zaila da justizia leheneratzaileak dituen balioak eta kontzeptuak sartzea: ikasle, irakasle, familia, tutore eta zuzendaritza-taldearekin lan egin, eta epe luzeko helburuak finkatu behar dira. Ahalegin nabarmena egin behar da, eta tartean sartuta dauden irakasleek denbora asko sartu behar dute.
KONTSULTAK EGITEKO PERTSONA	M ^a Carmen Ballesta Andonaegui, koordinatzailea.

BAKE-EPAILEA Proiektua

BIDEOA: Justizian Hezten

KONTAKTUA

Helbide elektronikoa:

30010978@murciaeduca.es

Telefonoa:

+34 968 266 922

LA ESCRIBANA BHIK BERDINTASUNERAKO BIDEAN

Villaviciosa de Córdoba, Kordoba.

Esku hartzeko arloa: Formala/Ez-formala/Komunitarioa.

Talde hartzailea: 12 eta 24 urte arteko nerabeak eta gazteak.

Erakunde bultzatzailea: La Escribana BHI.



DESKRIBAPENA	Ikastetxe honetako baterako hezkuntzako jardueren ikuspegiak “Berdintasunerako bidean” programan txertatzen dira, lehenik eta behin genero-ikuspegia barneratu delako hezkuntza-komunitateari zuzen edo zeharka dagozkion jarduera guztiak prestatzean, garatzean eta jarraipena egitean. Komunitateari dagokion bigarren aldian, “Landaguneetako emakumeak ahalduntzea” programaren bidez, ekintzak garatzen dira Villaviciosako emakumeak ikusgai jartzeko, berdintasunean oinarritutako giza harremanen ikusmoldea lortzeko eragile gisa, eta, horrela, eginkizun nagusi eta garrantzizkoagoa hartzen dute herria garatzeko erabakiak hartzean. Ildo horretan, “berdintasunaren aldeko” erakusketak egin, berdintasunean oinarritutako mezua duten eta emakumearen aurkako indarkeria gaitzesten duten bideoak egin eta editatu -herriko telebistan emandakoak-, eta Amen Eskolan berdintasunean oinarritutako hezkuntza lantzen da, besteak beste.
ERABILITAKO BALIABIDEAK	Tartean sartuta dauden gizarte- eta hezkuntza-arloko eragileek prestatutako baliabideak erabiltzen dira, ikasleek eta gizarteak hausnarketa egin dezaten genero-indarkeriaz, sare sozialetan azaldutako indarkeria-mota berrien prebentzioaz, maskulinitasun berriez, etxeko lanen eta familiako zaintzen onarpenaz, eta belaunaldien arteko hezkuntzaz. Informazio + >>
LANTALDEA	Ikasketaburua, ikastetxeko orientatzailea eta elkarlanean aritzen diren gurasoak.
TARTEAN DAUDEN GIZARTE ETA HEZKUNTZAKO ERAGILEAK	Ikasleak, irakasleak, Amen Eskola, Gurasoen Elkarte, Berdintasunerako Udako Zinegotzigoia, Udalerriaren Mankomunitatea eta “Puerto de las Estrellas” Emakume Elkarte.
HASIERAKO EGUNA ETA IRAUPENA	“Berdintasunerantz” programa 2004/05 ikasturtetik dago abian, eta 2012/2013 ikasturtean “Landaguneetako emakumeak ahalduntzea” proiektua sartu da. Gaur egun abian daude biak (2015eko maiatza).
BALIOESPENA	<u>Emaitza eta hobekuntza nagusiak:</u> Herria sutsuki engaiatu da eta hartu du parte proposatutako hezkuntza-ekintzetan. Emakumea ikusgai jarri da herriaren garapenean. Emakume gazteak aztertzen dituzten eta landa-guneetako mendetasuneko estereotipoekin hausten duten bizitza-proiektu independenteak sustatu dira. <u>Eragin orokorra:</u> La Escribana BHIren berdintasunaren aldeko hezkuntza-proiektuak ikusgaitasuna lortzeko egindako apustuari esker, herritarrek kontzientzia hartu dute eta herriko errealitatea aldatzeko parte-hartzeak duen garrantziaz ohartu dira. <u>Aurkitutako zailtasun eta oztopo nagusiak:</u> Ikastetxeko hezkuntza-proiektuaren barruan berdintasuna landu zen lehenengo urteetan, hau da, 2001. urtearen inguruan, oso kultura androzentrikoa zegoen hirian, eta herriaren ezaugarri geografikoek areago larritzen zuten arazoa.
KONTSULTAK EGITEKO PERTSONA	Sonia Moncalvillo Coracho, BHIko ikasketaburua eta Paco García Rueda, orientatzailea eta zuzendaria.

CONVIVES Aldizkaria. 5. zbk. (43. or.)

KONTAKTUA

Helbide elektronikoa:
14700419.edu@juntadeandalucia.es

Teléfono:
Telefonoa:

D. LANABESEN ONTZIA

TODOesIES PROGRAMA IKASKUNTZA-ZERBITZUA

Medina Sidonia, Cádiz.

Hezkuntza-arloa: Formal/Ez-formala/Komunitarioa.

Talde hartzailea: DBH eta Batxilergoko ikasleak (12 eta 18 urte artekoak).

Erakunde bultzatzailea: San Juan de Dios BHI.



DESKRIBAPENA	Ikastetxeak parte hartzean oinarritutako elkartasuna sustatu nahi du, bi jardute-ildo hauei jarraiki: “ <i>Elkartasuna barruan</i> ” (Gurasoen Elkartek, ama/aita lankideek, ikasle eta irakasle lankideek, AZLk eta hezkuntza-komunitateko kide izandakoek parte hartzen dute disruptiboak diren, abandonatuta geratzeko arriskuan dauden eta/edo zailtasunak dituzten ikasleekin egindako jardueretan) eta “ <i>Elkartasuna kanpoan</i> ” (curriculumeko ikasgaiak, esate baterako, Batxilergoko 1. mailako Proiektu Integratuak azken ikasturteetan garatutakoak; urtean barrena GKEekin elkartasuneko programak lantzen dituzten boluntarioen ekintza; gure ingurunean eragiten duten hezkuntza-planak eta proiektuak, adibidez, “Hazi zure zuhaitzarekin” (basoberritzea eta paisaia hobetzea); “Txakurrak hezteko eta zirkulazioko tailerra” (batera hezkuntzako antzerkia, bakearen aldeko ipuin-kontalaria, HLHletan egindako laguntza-jarduerak, HLHletako bitartekariak, etab.); beste leku batzuei buruzko informazioa hartu eta ideiak proposatzen dituen azterketako eta ekintzako lantaldea (GKEei, Udalari, Mankomunitateari, Aldundiari, bertako enpresei, banku eta kutxei galdetuta, etab.). Hain zuzen, ildo horiek garatu eta ezagutarazi nahi ditu. Informazio + >>
ERABILITAKO BALIABIDEAK	Lanerako prestakuntzako lantegi praktikoak, parte-hartzean oinarritutako dinamikak, esperientzien trukea.
LANTALDEA	Irakasleak, ikasleak, familiak, GEak, irakasleak ez diren langileak, borondatezko ikasle zaharrak, gizarte- eta kultura-arloko udal erakundeekiko lankidetzak.
TARTEAN DAUDEN GIZARTE ETA HEZKUNTZAKO ERAGILEAK	Gizarte- eta kultura-arloko herriko erakundeekiko lankidetzak: Alhucemas Emakumeen Elkartea, La Salud Gurasoen Elkartea, Gurutze Gorria, APHDA (Giza Eskubideen aldeko Andaluziako Elkartea), hirugarren adineko elkartek, Udala, etab.
HASIERAKO EGUNA ETA IRAUPENA	2014-2015ean hasi zen, eta indarrean dago oraindik (2015eko maiatza).
BALIOESPENA	<u>Emaiza eta hobekuntza nagusiak:</u> Irakasleen %50ek hartu dute parte jardueretan, eta irakaskuntzan aritzen ez diren langileek ere jardun dute. “TODOesIES” proiektuaren bidez, ikastetxea gehiago aritu da elkarlanean Gurutze Gorriarekin, Elikagaien Bankuarekin eta Adinekoen Egoitzekin. <u>Eragin orokorra:</u> “TODOesIES II” programaren plangintza 2015-2016 ikasturterako da, baina ikasturte honetan egin da lehenbiziko aldiz. <u>Aurkitutako zailtasun eta oztopo nagusiak:</u> Tailerrak abiarazi eta martxan egoteko, denbora asko sartu behar da eskola-orduetatik kanpo, irakasleek eta lankideek logistika antolatu ahal izan dezaten (elkarriketak, ordu-tegiak egokitzea, etab.).
KONTSULTAK EGITEKO PERTSONA	Diego Iguña Muñoz, proiektuaren koordinatzailea; Ximena Prieto Álvarez, ikasle laguntzaileen arduraduna eta Pascuala (Laly) Valiente Gómez, Baterako Hezkuntzako koordinatzailea.

BLOGA: San Juan de Dios BHI

KONTAKTUA

Helbide elektronikoa:
11007910.edu@juntadeandalucia.es

Telefona:
+34 956 418 924

GAZTEEN ELKARTASUNEN SAREA

Andaluzia, Madril, Murtzia, Galizia, Valentzia, Asturias, Gaztela eta Leon eta Extremadurako sarea.

Hezkuntza-arloa: Ez-formala, baina ikastetxeen ingurunean garatua gehienbat.

Talde hartzailea: 12 eta 18 urte arteko gazteei zuzendutako programa.

Erakunde bultzatzailea: Entreculturas Fundazioa, Fe y Alegría.



DESKRIBAPENA	Gazteek parte hartzeko programa honetan, gazteek beren borondatez hartzen dute parte, eta lan soziala egingen da, maila bereko kideekin taldean bilduta, prestakuntza, hausnarketa eta ekintza solidarioen bidez. Gizartean dauden arazoak zehazten dira -bertakoak nahiz orokorrak-, eta proiektuak edo ekintzak prestatzen dira, maila bereko kideen taldeetan, arazo horiei heltzeko: bertako komunitateari zerbitzua egitea, auzi orokorreki buruzko kontzientziazioa piztea eta gizartea mobilizatzeko ekintzak.
ERABILITAKO BALIABIDEAK	Guztienak diren gaiak buruzko prestakuntza sareko talde guztientzat. Batzordeak ikasturtearen hasieran, gaiak erabakitzeko. Elkartasunaren Agenda planifikatzea. Kanpainak eta mobilizazioak ikastetxe bakoitzean eta ikastetxeen artean. Bilerak orokorrak (2 urtean behin) sareko ordezkariak diren gazteen eta Entrescuelas programaren bidez haiekin harremanetan dauden beste herrialde batzuetako sareetako gazteen artean.
LANTALDEA	Hezitzailea (prozesu guztian lagunduz), irakasleak, eta familiak, laguntzako hezitzaile gisa aritzen direnean.
TARTEAN DAUDEN GIZARTE ETA HEZKUNTZAKO ERAGILEAK	Ikastetxeekin eta hezkuntza ez-formaleko prozesuak sustatzen dituzten instituzioekin elkarlanean (gazteen elkarteak, eta astialdikoak, parrokiak, udalak, etab.).
HASIERAKO EGUNA ETA IRAUPENA	2001-2002 ikasturtean hasi zen, eta gaur egun abian dago oraindik (2015eko maiatz).
BALIOESPENA	 Emaizta eta hobekuntza nagusiak: Maila bereko pertsonen talde bat sortzen da, eta segurtasun afektiboa eta kide izateko sentipena sustatzen dira haien artean, balioen ikaskuntza, enpatia eta erantzukizuna zehatz eta hurbil garatu ahal izateko. <u>Eragin orokorra:</u> Elkartasuneko ekintzak eginez, gazteak aldaketa egiten duten subjektu aktibo sentitzen dira, beren bizipenen bidez gizartea alda daitekeela ikusten baitute. ->> Hezkuntzako Sari Nazionala 2014 "Entidades para la Promoción Educativa" proiektuarekin Hezkuntza Ministerioa <<- <u>Aurkitutako zailtasun eta oztopo nagusiak:</u> Hezitzaileek emandako laguntza gidatzeko izatea, eta gazteen autonomia eta parte-hartzea ez bultzatzea.
KONTSULTAK EGITEKO PERTSONA	Irene Ortega, Entreculturas Fundazioko Hezkuntza Saileko arduraduna eta Yénifer López Ramos, Entreculturas Fundazioko Hezkuntza Sailekoa.

Gazteen Sarea. "Entreculturas"

PDFa: 10 historia urte

BIDEA: 10 urteko esperientzia

KONTAKTUA

Helbide elektronikoa:
educacion@entreculturas.org

Telefonoa:
+34 915 902 672 (ext. 348)

BITARTEKARITZA ETA INGURUMENEN PROGRAMA.

Pradolongo BHI. Madril.



DESKRIBAPENA

ERRESPETUA hitzak gidaturik, proiekturik zaharrena -bitartekotza- denoi dagokigun eta kezka pizten digun proiektu berriago batekin bateratu dute: ingurumena. Horretarako, ikasle laguntzaileen taldearekin batera (DBHko 1. eta 2. mailetakoa), bitartekarien taldea ere aritu da (3., 4. eta Batxilergokoak), ikastetxeko elkarbizitzari buruzko zereginak betetzen, eta, era berean, ingurumenari lotutako gaiak jorratzen.

KONTAKTUA

M^a Concepción Calderón Ortega (proiektuaren koordinatzailea).
mediacionpradolongo@gmail.com

[WEB ORRIA >>](#)

ZIBERRELKARBIZITZA-BOLUNTARIOAK.

Valladolideko Kultura Zentroa, Anaia maristak - Valladolid.



DESKRIBAPENA

Parekoen arteko hezkuntza oinarritzat hartuta, DBHko 4. mailako ikasleen talde batek (boluntarioek) hartzen dute parte, Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta DBHko 1. eta 2. mailako adiskideei Interneten erabilera arduratsuari buruzko prestakuntza ematen. Proiektuen bidezko ikaskuntzaren adibide egokia da. Gaitasunen araberrako metodologia erabiltzen da, eta ikasleek fase guztiak garatzen erabakiak har ditzaten sustatzen da.

KONTAKTUA

Inmaculada García Martín (Bigarren Hezkuntzako orientatzailea eta proiektuaren koordinatzailea)
secccv.va@maristascompostela.org

[WEB ORRIA >>](#)

ESKOLAKO GATAZKAK ETA BULLYING-A KUDEATZEKO ETA KONPONTZEKO PRAKTIKA LEHENERATZAILEEN PROGRAMA.

Elkarbizitzarako eta Eskolako Arrakastarako Institutua (Convivèxit). Balear uharteak.



DESKRIBAPENA

Convivèxitek praktika leheneratzaileei buruzko prestakuntza berezia eskaintzen die irakasleei, autonomia-erkidegoko irakasleen zentroekin lankidetzan, hezkuntza-arloko berariazko gatazkak prebenitzeko eta kudeatzeko, uharteetako ikastetxeetako elkarbizitza kudeatzeko "kultura leheneratzailea" ezartze aldera.

KONTAKTUA

Gaël Thyus Vieville (hezkuntza-orientazioko irakaslea eta irakasle aholkulari tekniko Convivèxit-en)
gathyus@dgplacen.caib.es

[WEB ORRIA >>](#)

TEKNOMENDEKOTASUNEN PREBENTZIOA.

GAITASUN DIGITALA DENONTZAT.

Infanta Elena BHI - Jumilla. Murtzia.



DESKRIBAPENA



Proiektuaren helburu nagusiak dira, alde batetik, ikasleak kontzientziatzea Informazio eta Komunikazioaren Teknologiaren erabilera txarrak dituen arriskuei buruz, eta, bestetik, estrategiak diseinatzea arrisku horiei aurrea hartzeko, jardura ugari dituen programa batez; besteak beste, hauek nabarmentzen dira: teknomendekotasunei aurrea hartzeko gida multimedia, seme-alabei eta gurasoei gaitasun digitala emateko tailerra, eta ekipamendu informatikoak optimizatzeko gida. ->> IRENE 2014 SARIAK <<-

KONTAKTUA

Andrés Carlos López Herrero (proiektuaren koordinatzailea).
andrescarlos.lopez@educamurcia.es

[WEB ORRIA >>](#)

D. LANABESEN ONTZIA

ESKOLAKO JAZARPENAREN KONTRAKO ZERO PROGRAMA Chile.



Hezkuntza-arloa: Formalak.

Erakundea: Columbia Educational Designs.

DESKRIBAPENA	Stavanger Unibertsitateko <i>Jokaera Ikertzeko Europako Zentroak</i> diseinatu zuen ZERO programa (Norvegia 2003), eta Ipar Amerikako <i>Columbia Educational Designs</i>-eko ikertzaileen taldeak egokitu zuen programa espainierara, 2011-2012 ikasturtetik aurrera Latinoamerikan abian jartzeko. 2011ko azaroan, Txilen abiarazi zuten, Calama hirian, bi eskola pilotutan. 2014tik aurrera, Coronel eta Talcahuano komunitateko eskoletan jarri zuten. ZERO programak aurea hartzen die ikasleen arteko eskolako jazarpenari eta irakasleei egindako erasoei, eta gutxitu ere egiten ditu. Horretarako, arlo formalean esku jartzen du (tailerrak, bullyingaren kontrako postontzia, "Gune Segurua", hitzaldiak...) eta prestakuntza ematen die irakasleei. Hauek dira bere oinarri nagusiak: 1) Eskolako jazarpen edo larderiako jokabiderik inola ere ez onartzea. 2) Eskolako profesional guztien arteko konpromisoa lortzea gaia lantzeko. 3) Lana denboran barrena iraunaraztea. Programa sistemiko gisa bilakatu da, eta ikaskuntza psikosozialerako ingurune osasungarria lortu nahi du, beste helburu batzuen artean.
HASIERAKO EGUNA ETA IRAUPENA	2011ko azaroan hasi zen, eta gaur egun abian dago oraindik (2015eko maiatza).
KONTSULTAK EGITEKO PERTSONA	Patricio Márquez, ZERO Bullying programako koordinatzailea Txilen. Kontaktua: pmarquez@zerobullying.cl

Zero Bullying Programa

JANARIA, HEZKUNTZA ETA BAKEAREN ERAIKUNTZA. Sierra Leona. HAURREN IKASKUNTZAKO ZERBITZUAK SIERRA LEONAN. FOOD, EDUCATION AND PEACEBUILDING: CHILDREN'S LEARNING SERVICES IN SIERRA LEONE



Hezkuntza-arloa: Ez-formala/Komunitarioa (herrialdean dagoen hezkuntza-sistemaren euskarriaz baliatzen da).

Erakundea: CLS - Children's Learning Service.

DESKRIBAPENA	CSL Sierra Leonan izandako gerra zibila amaitu ondoren sortu zen, gerrak kaltetutako adingabeko guztien duintasuna berreskuratzeko, haien buruarenganako eta etorkizunerako itxaropena eta konfiantza sortzeko, eta gizartean bakean bizitzeko beharra zegoelako, herritar jasanberak eta osasuntsuak izanda. CSL erakundeak sortutako sistemak janaria, ikaskuntza eta bakearen eraikuntza hartzen ditu barne: komunitateko janariak eta eskolako janariak ekoizteko programak uztartzea, eta adingabekoei irakastea beren errazioa partekatzen eta lortzen indarkeriaz baliatu gabe; gerran garatutako rolari lotutako emozioak kontrolatzeko saioak egitea; indarkeria handiko egoeretan izandako adingabeko guztien trauma ondoko estresa lantzeko saioak egitea; eta bakerako hezkuntzako saioak eta eguneroko gatazkak kudeatzeko trebetasunetan entrenamendu berezia egitea.
HASIERAKO EGUNA ETA IRAUPENA	2011n hasi zen, gerra amaitu aurretik, eta gaur egun abian dago oraindik (2015eko maiatza).
KONTSULTAK EGITEKO PERTSONA	Emma Kamara, Children's Learning Service-ren sortzailea eta koordinatzailea. Kontaktua: reginakamara2012@gmail.com

www.creducation.org





CENTRO DE ACTIVIDADES JUVENILES

GAZTEEN JARDUERA ZENTROA (CAJ). Argentina.

DESKRIBAPENA	CAJ zentroek eskolan egoteko eta ikasteko molde berriak sortu nahi dituzte, eta, horretarako, gazteen parte-hartzea bultzatzen dute, ikastetxean bertan eskola-aldia osatzeko gune eta une osagarrietan antolatutako ekintzetan. Proposamenek hainbat arlo hartzen dituzte barnean: kultura, artea, kirola, komunitate-ekintza, eskola-ekintzailletza eta herritartasunaren eraikuntza. Gazteek era aktiboan hartzen dute parte, eta akordioak egiten dira komunitateko erakundeekin. Horrez gain, eztabaidatzeko eta gaitzeko espazioak sortu dira, zeharkako gai hauen inguruan: giza eskubideak eta gazteen parte-hartzea, osoko sexu-heziketa eta drogen erabilerarako prebentzioa. CAJ zentroak kudeatzen dituen taldea irakasleek, ikasleen familiarrek, eta gainerako ikasleekin ordezkari diren gazteen taldeak eratzen dute (ikasle guztiek bi hautatzen dituzte ikasturte bakoitzeko). Horrela, zuzenean parte hartzen dute eta engaiatu egiten dira egiten diren jardueren kudeaketan eta antolakuntzan.
---------------------	---

WEB ORRIA >>



NURTURING A BETTER FUTURE FOR THE WORLD'S CHILDREN

CITY MONTESSORY SCHOOL

Home | About Us | Contact Us

Divine Education | Human Education | Material Education


CITY MONTESSORY SCHOOL (CMS)- BAKEA ERAIKITZEKO KONPROMISOA: MONTESSORY HIRIA ESKOLA. Lucknow- India.

DESKRIBAPENA	 Jagdish Gandhik eta bere emazteak, Bharti Gandhik, 1959an sortu zuten CMS, Mahatma Ghandik aldeztutako munduko bakearen filosofian eta kulturaren oinarrituta. Munduan batasuna eta bakea sustatzeko asmo handiko proiektuarekin engaiatuta, CMS lanean aritzen da, ikasleen osoko hezkuntzaren bidez gizartearen aberastasuna eta aurrerapena bultzatzeko, balio moral gailenetan oinarrituta. Helburu horiek lortzeko, CMSk programa zehatzak garatzen ditu, eta bere hezkuntza-sistema erabat kutsatzen duen filosofia ere bai: - Indo-Pak Children's Penfriends' Club: India eta Pakistango adingabekoen arteko gutun-trukea. - "Munduko Parlamentuko" saioen simulazioa. - <i>International School-to-School Experience</i>: gizarte desberdinetako eskoletara egin-dako hurbilpena, beste hezkuntza-eredu batzuk ezagutzeko. - <i>Children's International Summer Village Society</i>: munduko toki desberdinetako umeentzako udalekuak. ->> 2002ko irailean, UNESCOren Bakerako Hezkuntza saria irabazi zuen <<-
---------------------	---

WEB ORRIA >>



Accessibility Help
Terms of use
Contact



BALIO INKLUSIBOEN ETA “ELKARBIZITZAKO KULTURAREN” GARAPENA. Wiener Neudorf-Austria.

DESKRIBAPENA

Proiektu honek sareak sortu eta inklusioan oinarritutako eskolak garatzen ditu. Wiener Neudorf herriko ikastetxe guztiek batera egiten dute lan udalerrarekin “elkarbizitzako kulturaren” egiturak garatzeko, balio inklusiboak aintzat hartuta, adibidez, aniztasuna, berdintasuna eta zuzentasuna, lankidetzak, parte-hartzea, komunitatea eta iraunkortasuna. Horretarako, MB Rosenbergen indarkeriazkoa ez den komunikazioko prestakuntzako eta entrenamenduko jarduerak egiten ditu familiarrentzat, eta ikastetxeetako eta udaleko langileentzat, talde mistoetan antolatuta. Era berean, indarkeriazkoa ez den komunikazioari buruzko prestakuntza eta gatazkak era baketsuan kudeatzeko tresnak ematen dizkie ikasleei.

Proiektuari esker, inklusioaren aldeko sare bat sortu da, ingurune instituzioen eta tokiko gobernuaren parte-hartzea sustatzen duelako, gai sozial, ekonomiko eta ekologikoei buruzko ikuspegi orokorra finkatzeko eta inklusioa bultzatzeko. Inklusioa bizimodu gisa eta ikaskuntza bizitza-kalitatean txertatutako zati modura.

[WEB ORRIA >>](#)



“ESPAZIOAK ZABALTZEN” UNESCOREN PROGRAMA (ABRINDO ESPAÇOS). Brasil.

DESKRIBAPENA

2000. urtean, hau da, Bakearen Kulturarako Nazioarteko Urtean, UNESCOk Brasilen zuen ordezkariak “Espazioak zabaltzen” atera zuen: bakerako kultura eta hezkuntza, gazteei eta beren komunitateei zuzendutako ekimena. Programak gizarteratzeko eta hezkuntzako osagaiak uztartzen ditu, eta UNESCOk Brasilen egin duen eta politika publiko nazional bilakatu den lehen ekintza da. “Espazioak zabaltzen” programak duen metodologia da Hezkuntza Ministerioak 2004. urtean sortutako “Eskola irekia” programaren oinarria. Ordutik hona, Brasilgo estatu guztietan dago sartuta.

Horren bidez, eskola publikoak asteburuetan zabaltzen dira, eta kirol, jolas, kultura, inklusio digital eta lan-mundurako hasierako prestakuntzako jarduerak eskaintzen dira, talde desberdinen arteko elkarbizitza sustatzeko eta gatazkak negoziazioaren bidez konpontzeko bide emateko. Kultura, arte, kirol eta hezkuntzarako sarbidea edukita, gazteek beste adierazpide batzuk aurkitu ditzakete, indarkeriaren mintzairaz beste.

[WEB ORRIA >>](#)

D. LANABESEN ONTZIA



KiVa school
- Let's make it together!

KiVa International

KIVA PROGRAMA. Finlandia.

DESKRIBAPENA	Finlandiako Turkuko Unibertsitateak garatu zuen KiVa, Finlandiako Hezkuntza eta Kulturako Ministerioaren finantzaketaz, larderiari aurrea hartzeko eta eskolako jazarpen-kasuei eraginkortasunez aurre egiteko. Ekimen honen bidez, eskola bakoitzeko jazarpen-egoera aztertu, eta eskola-jazarpenari buruzko eskolak antolatzen dira, arazoak kontzientzia hartzeko, eta ikasleek eta irakasleek tresna egokiak izan ditzaten honelako kasuetan zer egin behar den jakiteko. Ikastetxe bakoitzean, irakasle-talde bat hautatzen da, programaren ardura har dezan, eta, horrenbestez, ikastetxe horretako egoera bereziaren arabera diseinutako jarduerak garatzen ditu. KiVak irakasle, ikasle eta familientzako materialak ditu. Programak sari ugari jaso ditu Finlandian eta Europa osoan.
---------------------	---

WEB ORRIA >>

un egoteko eta ikasteko molde berriak
hartze aktiboa lan kide-tza
munduan batasuna eta bakea sustatzeko asmoa
zitzako kultura
a Ghandi eztabaidatzeko eta gaitzeko espazioak
asuna eta zuzentasuna **Balio inkusiboak**
komunitatea
te-hartzea iraurkortasuna
de desberdinen arteko elkarbizitza sustatu
stasunari balioa eman jasorpen kasuei aurre egin

duIN!

D.3. Baliabide praktikoak

www.pantallasamigas.net



Teknologia berriak modu seguru eta osasungarrian erabiltzea sustatzeko eta haurtzaroan eta nerabezaroan herritar digital arduratsuak izatea bultzatzeko egin-kizuna duen ekimena da.

www.losnuevosvecinos.net



11 urtetik 14 urtera bitarteko nerabeen artean xenofobia eta arrazakeriari aurrea hartzeko hezkuntza-proposamena. Ekimenaren euskarri nagusia komiki bat da. Hezkuntza-materialak EDEXek egin ditu, eta kultura arteko hezkuntza arloko adituek ere parte hartu eta laguntza eman dute.

www.bakelan.net



BAKEOLAREN Bakerako eta Giza Eskubideen aldeko hezkuntza arloko baliabideen web-ataria da. Irakasleen lana bideratzera zuzendutako tutore-ekintza planak, aisialdiko elkarte eta taldeek hiruhileko batean zehar garatu ahal izateko programatutako jarduerak eta familia-inguruan egiteko dinamikak elkarrekin konbinatzen dituen webgunea da.

www.edualter.org



Bakea, garapena eta kultura artekotasunerako hezkuntza-baliabideak partekatzeko gune birtuala da.

www.escolapau.uab.cat



Bakerako hezkuntza, hezkuntza gatazkararen baitan, kultura arteko hezkuntza eta mundua ulertzeko hezkuntzari lotutako gaien inguruko jarduerak eta gida didaktikoen Baliabideen Bankua.

www.xtec.cat



Bullying-a detektatu eta prebenitzen laguntzeko web-baliabidea da. Observatoire International de la Violence Scolaireko kide diren haur eta gazteen psikopatologia arloko irakasle, psikologo eta masterrek (UAB) osatu dute.

www.educatribu.net



Material didaktiko libre eta doakoak partekatzeko pertsona talde batek sortutako gunea da. Asmo hori bera duten lagun guztiek bat egin ahal izan dezaten zabalik dagoen lan-proiektua da: senitartekoak, irakasleak, ikasleak eta hezkuntzan interesatutako guztiak.

www.aulaintercultural.org



FETE-UGTren kultura arteko hezkuntzako ataria da, irakasleentzako informazioa, didaktika eta ikerkuntzako materialak, ikasleentzako tailerrak, sentsibilizatzeko kanpainak eta argitalpenekin.

www.educarenigualdad.org



Berdintasuna eta genero indarkeriaren prebentzioa lantzeko Mujeres fundazioaren hezkuntza-baliabideen ataria.

www.includ-ed.eu/es



ONCE fundazioak bultzatutako incluD-ed Hezkuntza inklusiboa eta desgaitasunaren inguruko sare europarra elkarlaneko ekimen "stakeholder-anitza" da, eta Europan desgaitasuna duten pertsonentzako hezkuntza inklusiboaren esparruan praktika onak sustatzea, identifikatzea eta elkarrekin trukatzeko du helburu nagusia.

www.cultivatingpeace.ca



Bakearen kultura bideratzeko ekimena da. Web horren bitartez, irabazi asmorik gabeko "Classroom Connections" erakundeak umeei bakearen inguruko baloreak lantzeko hezkuntza-materialak eskaintzen ditu: irakasleentzako erreferentziako gidak eta materialak, eta baita ikasleekin eta gurasoekin lantzekoak ere.

www.creducation.org



Mundu osoan zehar gatazkak konpontzeko hezkuntza sustatzea lantzen duen webgunea da, eta elkarrekin lotutako erakunde, profesional eta hezitzaileak bateratzen dituen sare zabala eskaintzen du. Gatazkak konpontzearekin lotutako hainbat gairi buruzko material interesgarria eskaintzen du.



E

AZKEN GOGOETAK




E. AZKEN GOGOETAK

Honenbestez, “duIN”ek osagai teorikoen, metodologikoen eta praktikoen sorta bat aurkeztu digu, hezitzaileoi zeregina errazteko gazte-taldeekin egiten dugun lanean, gazteei pertsona kritikoak, arduratsuak, solidarioak izaten eta gatazkako egoera desberdinen aurrean balioak edukitzen laguntzeko. Ahalegin horretan aritu gara.

Osagai teorikoak lagungarriak dira gatazkara hurbiltzeko eta giza izaerari datxekion gertaera gisa oro har ulertzeko, konplexurik gabe heltzeko lehen urrats bezala; osagai metodologikoez jarduteko gomendio eta iradokizun batzuk ematen dizkigute, eta dinamika soil batzuk ere bai, erraz erabiltzeko modukoak taldeekin gatazkak kudeatzen hastean; eta, azkenik, era askotako eta jatorri ugaritako esperientzien eta baliabide praktikoen bildumak gatazken kudeaketa lantzen du gure gazteei eta beren elkarbizitzako prozesuei dagozkien esparruetan, esate baterako, genero-zuzentasunean, indarkeriaren prebentzioan, jazarpean eta ciber-jazarpean, espazio komunak erabileran etab. Inspirazio gisa erabili ahal izango ditugu, eta ideia eta tresna praktikoa batzuk emango dizkigute lan nekez honetan laguntzeko. Ez da erraza elkarrekin bizitzen ikastea, eta “duIN”ek ez digu bestelakorik pentsarazi nahi.

Aitzitik, “duIN”ek bultzada eman nahi digu herritartasun kritikoa, solidarioa, demokratikoa, inklusiboa, baketsua... eraikitzeko. Azken batean, adore eman nahi digu tartean sartu, eta herritartasun arduratsua eraikitzeko lanean engaia gaitzen. Eta, ildo horretan, gonbit egiten digu bere edukiei zukua ateratzeko; ez gaitzen gera oinarrizko alderdietan, nabarmenak diren horietan, eta eman diezaiegun jarraipena komunitate-espirituari eta parte-katutako ezagutzei. Hala, bada, jar gaitzen harremanetan interesgarrien iruditzen zaizkigun esperientziekin, eta parteka ditzagun kezak, ideiak eta zalantzak sinergiak sortu eta ezagutzak trukatzeko asmoz beren izenak eta kontaktua eskuzabaltasunez utzi dituzten profesionalekin, denon artean herritartasun kritikoa eta arduratsua eraikitzen jarraitzeko asmo bakarrarekin.



Matiz erakundeko taldeak mirespena erakutsi nahi die horiei guztiei, egin duten lan handiagatik, eta esker onik zintzoena ere eman nahi die, informazio baliagarri hau bildu, laburtu, eta “duIN” proiektuaren esku utzi dutelako, denon artean aberasteko asmoz. Nahiko genuke argitalpen honetaz goza dezazuen, eta, gainera, bat egin dezazuen asmo handiko helburu hau lortzeko.

Zorionak “duIN” egiteko aukera eman duzuen guztioi.



F

BIBLIOGRAFIA



Alzate, R. (1998): *Análisis y resolución de conflictos. Una perspectiva psicológica*, Bilbo, UPV-EHU.

Alzate, R. (2004): *Curso-taller de habilidades de resolución de conflictos en el marco escolar*, Iruñea, GEUZ - UPV/EHU.

Ancora. (2009): *Manual para la formación en mediación escolar*. Proyecto de Prevención de la Violencia y Promoción de Conductas Prosociales en Establecimientos Educativos del Programa Chile + Seguro. Ministerio de Interior del Gobierno de Chile.

Algava, M. (2006): *Jugar y Jugarse*. Ciudad Autónoma de Buenos Aires: Asociación Madres de Plaza de mayo; Rosario: Ediciones América libre.

Bisquerra, R. (2010): "Emoción y conflicto", Centre d'Estudis Jurídics Europeus i Mediació - Cejem, Workin Paper, 3. Universitat de Barcelona.

Burguet, M. (1999): *El educador como gestor de conflictos*, Aprender a Ser bilduma, Bilbo, Desclée De Brouwer.

Cascón, F. (2001): *Educación en y para el conflicto*. Bakeari eta Giza Eskubideei buruzko Unesco Katedra, Universidad Autónoma de Barcelona.

Cascón, F. (2006): "Apuntes sobre educar en y para el conflicto y la convivencia", Andalucía Educativa, 53 (otsaila), 24-27.

Díaz-Aguado, M.J. (1998): Prevenir la violencia desde la escuela. Programas desarrollados a partir de la investigación-acción. *Revista de Estudios de Juventud*, 42, 63-77.

Díaz-Aguado, M.J. (2002): *Convivencia escolar y prevención de la violencia*. Página web del Centro Nacional de Información y Comunicación Educativa.

Díaz-Aguado, M. J. (2004): *Prevención de la violencia y lucha contra la exclusión desde la adolescencia. Volumen-tres. Intervención a través de la familia*. Madril: Instituto de la Juventud.

Díaz-Aguado, M. J. (2007): *Educación intercultural y aprendizaje cooperativo*. Madril, Ediciones Pirámide.

Domínguez, R. y García, S. (2003): *Introducción a la Teoría del Conflicto en las Organizaciones*, Universidad Rey Juan Carlos de Madrid.

Farré Salvá, S. (2004): *Gestión de conflictos: taller de mediación. Un enfoque socioafectivo*, Bartzelona, Ariel.

Federación de Enseñanza de CC.OO. (2001): *Los problemas de la convivencia escolar: un enfoque práctico*. Política Educativa, Madrid. Federación de Enseñanza de CC.OO.

Flecha, R. (2005): *Las comunidades de aprendizaje como expertas en resolución de conflictos*. Bartzelona, CREA.

Flecha, R. eta Puigvert, L. (2012): "Las comunidades de aprendizaje", hemen: Trinidad, A. eta Gómez, J. (koord.) (2012): *Sociedad, Familia, Educación. Una introducción a la sociología de la educación*. Madril, Editorial Tecnos.

GEUZ, (2004): *Resolución de conflictos: curriculum para educación secundaria*, Bilbo, Gatazka Eraldatzeko Unibertsitate-Zentroa - Centro Universitario de Transformación de Conflictos.

Eusko Jaurlaritzak (2010): *Evaluación diagnóstica. Competencia Social y Ciudadana. 2º Curso de Educación Secundaria Obligatoria*, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

Gutiérrez, J.M. (2012): "De la violencia a la convivencia escolar" hemen: Trinidad, A. eta Gómez, J. (koord.) (2012): *Sociedad, Familia, Educación. Una introducción a la sociología de la educación*. Madril, Editorial Tecnos.

Jares, X.R. (2004): *Educar para la paz en tiempos difíciles*, Bilbo, Bakeaz.

Kreidler, W.J. (2011): *La resolución creativa de conflictos (manual de actividades)*. Unión Temporal: Centro persona y Familia, Fundación para el Bienestar Humano – SURGIR.

Lederach, J.P. eta Chupp, M. (1995): *¿Conflicto y violencia? ¡Busquemos alternativas para la paz!*, Guatemala, Ed. Semilla.

Lederach, J.P. (2000): *El abecé de la paz y los conflictos. Educación para la paz*, Edupaz 10, Madril, Catarata.

Marina, J.A. (2007): *Aprender a convivir*, Biblioteca Crecimiento Personal, Espainia.

Moreno, M. eta Sastre, G. (2010): *Conflictos y emociones: un aprendizaje necesario*, Facultad de Psicología, Ciències de l'Educació i de l'Esport Blanquerna, Universitat Raon Llul.

Muñoz, F.A. eta Molina, B. (2004): *Manual de paz y conflictos*, Consejería de Educación y Ciencia de la Junta de Andalucía, Universidad de Granada.

París, S. (2009): *Filosofía de los conflictos. Una teoría para su transformación pacífica*, Bartzelona, Icaria.

Ramos, M.E. eta Muñoz, Y. (2010): "Los conflictos. Claves para su comprensión", Gizateka, 3. Bilbo, Gizagune Fundazioa.

Redorta, J., Obiols, M., eta Bisquerra, R. (2006): *Emoción y conflicto. Aprenda a manejar las emociones*, Bartzelona, Paidós.

Sánchez G^a-Arista, M.L. (Koord.), (2013): *Gestión positiva de conflictos y mediación en contextos educativos*, Madril, Reus.

Sánchez G^a-Arista, M.L. (2014): "Nuevas claves en Mediación Educativa", *Innovación Educativa*, 2, 5-18.

Sarrado, J.J. (1997): *Análisis de los resultados de los programas de mediación en el ámbito de la justicia penal juvenil catalana*. (Universitat Autònoma de Barcelona aurkeztutako doktoregoko tesia).


Smith E.R., eta Mackie, M. D. (1997): *Psicología Social*, Madrid, Editorial Médica Panamericana.

SUBIRATS, J. (2002): *Gobierno Local y Educación. La importancia del territorio y la comunidad en el papel de la escuela*. Bartzelona, Ariel.

Triana, M.V. (2001): "Educación y competencia social: un programa para el aula. Aprender a ser personas y a convivir: un programa para secundaria", hemen: Federación de Enseñanza de CC.OO. (2001): *Los problemas de la convivencia escolar: un enfoque práctico*. Política Educativa, Madril. Federación de Enseñanza de CC.OO.

Tuvilla, J. (2004): *Convivencia escolar y resolución pacífica de conflictos. Plan Andaluz de educación para la cultura de paz y no violencia*. Materiales de apoyo nº 2. Consejería de Educación y Ciencia. Junta de Andalucía.

Uruñuela, P. (2012): *Cómo resolver conflictos. Herramientas para prevenir desde las familias y las AMPAS*, Madril, CEAPA.



duIN!